GIZA BALIABIDEAK, NOMINAK ETA LANGILEAREN ATARIA MODULUA ADMINISTRATZEKO ETA ERANILTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ESLEITZEKO DEITUTAKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.

AURKIBIDEA

I. XEDAPEN OROKORRAK 4
1. Erakunde kontratatzailea 4
2. Kontratuaren izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna 4
3. Kontratuaren xedea 4
4. Kontratuaren iraupena 4
5. Kontratuaren prezioa, balio zenbatetsia eta kontabilitateko errubrika 5
6. Lotetan zatitzea 5
7. Preskripzio teknikoak 5
II. XEDAPEN BEREZIAK 5
8. Esleitzeko eta izapidetzeko modua 5
9. Lehiaketako dokumentazioa eta informazioa 5
10. Bermeak 5
10.1 *Behin-behinekoa* 5
10.2 *Behin betikoa* 6
11. Eskaintzak aurkeztea 6
11.1 *Era eta epea* 6
11.2 *Eskaintzei buruzko ohar argigarriak* 9
11.3 *Bazter uzteko arrazoiak* 9
12. Eskaintzen edukia 9
12.1 *(A) Gutun-azala: aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.* 10
12.2 *(B) Gutun-azala: Formulaz ezin kuantifika daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa* 12
12.3 *(C) Gutun-azala: Formulaz kuantifika daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa* 12
13. Esleitzeko irizpideak 12
14. Kontratazio Mahaia eratzea eta eskaintzak baloratzea 12
14.1 *Kontratazio-mahaia* 12
14.2 *Mahaiak eskaintzak irekitzean egin beharreko jarduerak* 13
15. Anormaltasun susmoko eskaintzak 14
16. Eskaintzen sailkapena. Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta prozedura bertan behera uztea 15
17. Kontratua esleitzea, ebaztea eta jakinaraztea 17
18. Kontratua formalizatzea 17
III. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK 18
19. Kontratua betearazteko baldintzak 18
20. Kontratua aldatzea 18
21. Betearazteko baldintza bereziak 18
22. Zeapenak 19
IV. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK 20
24. Jakinarazpenak 20
25. Prezioak berraztertzea 21
26. Epeak 21
27. Aldagaien onargarritasuna 21
28. Subrogazioa 21
29. Bestelako informazioa 21
30. Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa 21

31. Datu pertsonalen tratamenduak, Biscaytik Fundazioa tratamenduaren arduradun gisa jardutean....23
32. Datu pertsonalen tratamenduak, Biscaytik Fundazioa tratamendua-eragile gisa jardutean 29
33 Jabetza intelektuala 35
I. ERANSKINA 37
II. ERANSKINA 38
III. ERANSKINA 41
IV. ERANSKINA....45
V. ERANSKINA....49
VI. ERANSKINA....52
VII.ERANSKINA....53

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (hemendik aurrera, "**erakunde kontratatzailea**") Plegu honen goiburuko karatulako 2. puntuan zehaztuta dago, eta haren datuak, helbidea, telefonoa eta kontratatzailearen profila puntu berean daude jasota.

2. Kontratuaren izaera, araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna

Lizitazio honi dagokion kontratuak izaera pribatua du.

Kontratua prestatzeko eta esleitzeko, administrazioko klausula hauek eta karatulako 3. puntuan adierazitako xedapenak bete beharko dira.

Ondorioei eta kontratua iraungitzeari dagokionez, Zuzenbide Pribatuko arauak beteko dira. Hala ere, azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontraturen 9/2017 Legeak (SPKL) -Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen dituenak- artikulu hauetan xedatzen duena aplikatu ahal izango da: ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrei buruzko 201. artikulua; betearazteko baldintza bereziei buruzko 202. artikulua; kontratua aldatzeko kasuei buruzko 203tik 205era arteko artikuluak; lagatzeari eta azpikontratatzeari buruzko 214tik 217ra arteko artikuluak; eta kontratazioaren arrazionalizazio teknikoari buruzko 218tik 228ra arteko artikuluak; eta, era berean, 198. artikuluaren 4. idatz-zatiak, 210. artikuluaren 4. idatz-zatiak eta 243. artikuluaren 1. idatz-zatiak ezarritako ordainketa-baldintzak, bai eta 319. eta 320. artikuluetan finkatutakoa.

Kontratua prestatzean, esleitzean eta aldatzean aldeen artean desadostasunik izanez gero, aldaketa horiek inpugnatzeko oinarria Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea denean, aldaketa horretarako beste esleipen bat egin behar zela jotzen denean, administrazioarekiko auzietako jurisdikzio-ordenak izango du eskumena.

Kontratuaren ondorioetan eta iraungitzean aldeen artean desadostasunik izanez gero, jurisdikzio-ordena zibilak izango du eskumena, aurreko paragrafoko kontratu-aldaketetakoak alde batera utzita.

3. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea karatulako 4. puntuan zehaztuta dago.

4. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraunaldia eta/edo prestazioa betetzeko aldia karatulako 5. puntuan zehaztuta dago.

Karatularen 6. puntuan hala ezarri bada, kontratua luzatu egin ahalko da, eta prestazioak ematen jarraitu, hasieran adierazitakoa ez den beste aldi batean. Luzapena kontratazio organoak erabakiko du, eta enpresariak nahitaez bete beharko du, betiere, gutxienez kontratuaren iraupen-aldia amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero, eta kontratua arautzen duen pleguan ez badago horretarako epe luzeagoa ezarrita. Aurrez abisatzetik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak.

5. Kontratuaren prezioa, balio zenbatetsia eta kontabilitateko errubrika

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua karatulako 7. puntuan zehaztuta dago, eta puntu berean dago jasota kontratuaren balio zenbatetsia eta, hala dagokionean, kontabilitateko errubrika, prezioa horren kargura ordaintzeko.

6. Lotetan zatitzea

Kontratua lotetan banatuko da, karatulako 8. puntuan adierazitako moduan, eta 9. puntuan ezarritako mugekin eta aukerekin.

7. Preskripzio teknikoak

Kontratuaren xede den prestazioak plegu honetako baldintzak eta kontratuaren parte ere badiren eta I. Eranskinean jasota dauden preskripzio teknikoetako baldintzak bete beharko ditu.

II. XEDAPEN BEREZIAK

8. Esleitzeko eta izapidetzeko modua

Kontratu hau karatulako 10. puntuan adierazitako prozedurari eta izapidetzeko moduari jarraiki, eta, era berean, karatulako puntu berean aipatzen diren arauak betez esleituko da.

9. Lehiaketako dokumentazioa eta informazioa

Interesdunek pleguak, kontratua eta garrantzia duen gainerako dokumentazioa aztertu ahal izango dituzte, karatulako 11. puntuan adierazitako lekuan ; hor, dokumentazioaren kopiak eskuratu ahal izango dituzte.

Dokumentazioari eta lehiaketako gainerako baldintzei buruzko zalantzak erakunde kontratatzaileak argituko ditu.

Lizitazioko prozedurarekin interesa duten guztiei pleguei buruzko informazio osagarria eta eskatzen duten bestelako dokumentazioa emango zaizkie, gehienez eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitu baino 6 egun lehenago, betiere, eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea igaro baino gutxienez 12 egun lehenago eskatzen badute.

Hala behar denean, karatulako puntu horretan adieraziko da kontratua betearaziko den lekua bisitatzeko aukera.

10. Bermeak

10.1 *Behin-behinekoa*

Ez da behin-behineko bermerik eskatu beharrik izango, betiere, salbuespen gisa, interes publikoko arrazoiak direla-eta, beharrezkotzat jotzen ez bada, eta, orobat, karatulako 12. puntuan arrazoiak adieraziz justifikatzen ez bada. Kasu horretan, berme bat eratu beharko da aurrez, kontratua burutu arte eskaintzei eusteko.

Berme hori Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 108. artikuluaren 1. idatz-zatian ezarritako moduan eratu ahal izango da. Abalak eta kauzio-aseguruak II. Eranskinean agertzen den eredua bete beharko dute.

Aldi baterako enpresa-batasunen kasuan, batasuna osatzen duen enpresa batek edo gehiagok era dezakete behin-behineko bermea, baina denen artean plegu

honetan eskatzen duen zenbatekora iritsi behar dute, eta batasuna osatzen duten guztien berme izan behar du modu solidarioan.

Behin-behineko berme hori automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaileei berehala itzuliko zaie kontratua burutu ondoren. Nolanahi ere, esleipendun izateko hautatutako lizitatzaileari behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio; gainera, behin-behineko bermearen zenbatekoa aplikatu ahal izango zaio behin betikoari, edo berme berria eratu.

10.2 *Behin betikoa*

Karatulako 13. puntuan horrela ezarrita dagoenean, eskaintzarik onenak aurkezten dituzten lizitatzaileek berme bat eratu beharko dute kontratazio-organoarentzat, puntu horretan adierazitako zenbatekoarekin.

Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak 108. artikuluan ezartzen dituen era guzietan aurkeztu ahal izango da bermea. Abalak eta kauzio-aseguruak III. Eranskinean agertzen den eredua bete beharko dute.

Itzultzeko edo indargabetzeko araubidea Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak 109. eta 111. artikuluetan ezarritakoa izango da.

Behin betiko bermeak Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen 110 artikuluan jasotako erantzukizunak bete beharko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak era egokian burutu beharko ditu kontratatu diren lanak eta horietan egon daitezkeen eta kontratuaren indarraldian jakinaraziko zaizkion akatsak zuzendu beharko ditu. Kontratuaren indarraldia amaitu ondoren bermealdiak indarrean jarraituko du karatulako 13. puntuan ezarritzen duen epean.

Bermealdia baliagarria da Biscaytik Fundazioko pertsonalak lanen betearazpenean edo garapenean aztertu eta berrikusi arren edo frogaketa, balorazio edo emate partzialetan onartu arren.

Enpresa adjudikaziodunaren konpromisoa da bere akatsen edo beste aplikazioen edo kanpoko esku hartzeen ondorioz ez eragindakoen funtzionaltasun ezak konpontzea eta Biscaytik Fundaziarentzat inolako kargurik eragin gabe egitea.

11. Eskaintzak aurkeztea

11.1 *Era eta epea*

Proposamenak horretarako gaitutako helbide elektronikoan aurkeztuko dira (https://apps.bizkaia.eus/sede-lantik/licitacion/oferta/asistenteInscripcion?numexpediente=NUMERODEEXPEDIENTE), lizitazio-iragarkian zehaztutako epean eta ordua baino lehen. Eskaintzak sinadura elektroniko aitortu bidez sinatuta egon beharko du, plataformak onartutako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile batek baliozkotasunez emana, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatu beharko ditu, Konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituen azaroaren 11ko 6/2020 Legean eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Lizitazio Elektronikoko Plataformara sartzeko, lizitatzaileak Biscaytik Fundazioak onartutako ziurtagiri elektroniko baimendu edo gaitu bat eduki beharko du: https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt?idioma=es.

Eskaintza elektronikoan erantsitako fitxategi indibidual bakoitzak gehienez 75 MB-ko tamaina eduki ahal izango du, eta guztira 400 MBkoa. Eskaintzari erantsi ahal zaion fitxategi-kopuruari dagokionez, plataformak ez du mugarik ezartzen.

Aurkezten diren eskaintzen eranskinetako dokumentuei dagokienez, formatu hauek onartzen dira:

.doc /.docx: Microsoft Word-eko testu-formatu natiboa.

.xls /.slsx: Microsoft Excel-eko kalkulu-orriaren formatu natiboa.

.ppt /.pptx: Microsoft Power Point-eko aurkezpeneko formatu natiboa.

.rtf: Testu-formatu estandarra.

.sxw: Star Office-ko testu-formatu natiboa.

.abw: Abiword-eko testu-formatu natiboa.

.pdf: Adobe Acrobat-eko formatu dokumental natiboa.

.jpg: Formatu grafikoa.

.bmp: Microsoft Windows-eko formatu grafiko natiboa.

.tiff /.tif: Formatu grafikoa.

.odt: OpentDocument-eko testuaren formatua.

.ods: OpentDocument-eko kalkulu-orriaren formatua.

.odp: OpenDocument-eko aurkezpenaren formatua.

.odi: OpentDocument-eko irudiaren formatua.

.zip: Winzip-eko formatu trinkotu natiboa eta Microsoft Windows-ek jasandakoa.

.dwg: AutoCAD-eko marrazkiaren formatua.

Beste formatu batzuetako artxiboak eransteko hautabide gisa, trinkotutako artxibo batean ere sar daitezke (ZIP).

Lizitatzaileek arduratu behar dute eskaintzek birusik izan ez dezaten. Hala ere, birusa egon arren, eskaintza ez da besterik gabe bazter utziko, betiere, edukia eskuratu ahal bada. Kasu bakoitzeko inguruabarrak kontuan hartuta, Kontratazio Mahaiak hartuko du horri buruzko erabakia.

Enpresa lizitatzaileek Interneteko helbide egokitutik eskuratu ahal izango dute gutun-azal digitalaren zerbitzua. Helbide horretatik, eskaintza prestatzeko eta aurkezteko web-inprimakiak eskuratu ahal izango dira. Proposamena bidaltzeko unean, onartutako ziurtapen-erakunde batek emandako ziurtagiri digital batekin sinatu beharko duzu eskaintza.

Une horretan, nabigatzailetik, baina lizitatzailearen ordenagailutik bertatik, eskaintza jatorrian zifratuko da, lizitazio-plataformara bidaliko da kanal seguruaren bidez eta gordailu seguruan gordeko da, eta bertan zainduko da behar diren sarbide-eskubideekin soilik berreskuratu ahal izateko. Sarbide-eskubide horiek izendatutako zaintzaileek baino ez dituzte, eta ezarritako irekiera-unea iristen denean baliozkotu beharko dute beren nortasuna.

Edozein arrazoi dela-eta enpresa lizitatzaileak ezin badu eskaintza bidali, bi fasetan bidali ahal izango du eskaintza:

Lehenengo fasean, enpresa lizitatzaileek posta elektronikoz (eskaintzak@biscaytik.eus) aurkeztu ahal izango dute eskaintzaren aztarna digitala, betiere eskaintzak aurkezteko epearen barruan egiten bada. Eskaintzaren "hash" edo aztarna elektronikoko datu-multzoaren bidez bermatzen da argi eta garbi jaso dela eskaintzaren beraren edukia; horrela, edukian zerbait aldatuz gero, berehala hauteman ahal da, eskaintza osoa ondo bermatu ahal izateko, eta, orobat, lizitatzaileak eskaintza bidali duen unetik edukia ezertan aldatu ez dela egiaztatzeko. Lizitatzaileek haien eskaintzaren "hash" edo aztarna elektronikoa transkribatuta bidali beharko dute (ez irudia), eskaintzak@biscaytik.eus posta elektronikora, eta, harekin batera, dagokion espediente-zenbakia, eta lizitatzailearen identifikazioko datuak ere igorri beharko dituzte, Biscaytik Fundazioaren Kontratazio Mahaiak egiaztatu ahal izan dezan aztarna digital hori bat datorren aurkeztutako eskaintzako aztarnarekin, eskaintza igorri ondoren.

Bigarrenean, eskaintza bera bidali beharko dute, lizitazio elektronikorako gaitutako ohiko mekanismoaren bidez, aztarna digitala igortzen denetik gehienez 24 orduko epean. Bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza bertan behera utzi dela ulertuko da.

Eskaintza baten edukira sartzerik ez badago, artxibategia kaltetuta dagoelako, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako kopia erabili ahal izango da. Aurrez, ondo egiaztatu beharko da eskaintzako aztarna digitala bat datorren kontratazio-organoak duenarekin.

Eskaintza bidaltzen duen pertsona edozein dela ere, enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak sinatu beharko du eskaintza elektronikoa. Beraz, bi aukera daude:

1) edo eskaintza osoa elektronikoki sinatzen da, enpresaren edo erakundearen ahaldunen ziurtagiriarekin, eta horrek baliozkotasuna ematen dio aplikazioaren inprimakietan sartutako informazioari.

2) edo ziurtagiri digitala duen pertsona batek bidaliko du eskaintza, eta eskaintzaren eskaintza elektronikoa osatzen duten dokumentu elektronikoak erantsi, enpresaren edo erakundearen izenean eta ordezkaritzan kontratatzeko ahalorde nahikoa duen pertsonak sinatuta.

11.2 *Eskaintzei buruzko ohar argigarriak*

Eskaintza aurkeztu ondoren, lizitatzaileak ez du kentzerik izango, ondo justifikatutako ezinbesteko kasua ez bada.

Lizitatzaileek karatulako 29. puntuan adierazitako epean eutsi beharko diote eskaintzari, eta eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatzen denetik hasiko da kontatzen epe hori.

Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat baizik ezin izango du aurkeztu, karatulako 23. puntuan onartutako aldaerei buruz xedatutakoa gorabehera. Era berean, lizitatzaile bat bakarka aurkezten bada, ezin izango da beste batzuekin aldi baterako enpresa-batasunean elkartuta aurkeztu, ezta enpresa-batasun batean baino gehiagotan sartuta egon ere. Idatz-zati honetan ezarritako arauak bete ezean, lizitatzailearen eskaintzak ez dira onartuko.

Ez dira onartuko kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak direla-eta eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa den eduki hori garbi ikusteko biderik ematen ez duten eskaintzak.

Interesdunen eskaintzek lizitazioa arautzen duten pleguak eta dokumentazioa bete beharko dituzte, eta haiek aurkezteak berekin ekartzen du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea klausula edo eskakizun guztiak, salbuespenik gabe, eta, orobat, baimena ematea Kontratazio Mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

11.3 *Bazter uzteko arrazoiak*

Ondoko inguruabarren batean dauden eskaintzak, lehiaketatik kanpo utziko dira, eta erakunde kontratatzaileak horren arrazoiak eman beharko ditu:

(i) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.

(ii) Eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzazkoa, teknikoa edo profesionala ez egiaztatzea.

(iii) Hainbat eskaintza ekonomiko aurkeztea, banaka edo beste lizitatzaile batzuekin aldi baterako enpresa-batasunean.

(iv) Preskripzio teknikoak edo gehieneko lizitazio-motari buruzko preskripzioak ez betetzea.

(v) Gutun-azal batean beste batean sartu beharreko dokumentazioa jasotzea.

(vi) Plegu honetan edo preskripzio teknikoen pleguan finkatutako baldintzak ez betetzea, edota eskatutako dokumentazioa (B) edo (C) Gutun-azalean ez sartzea.

Baztertutako eskaintzak dagokien aktan edo diligentzian jasoko dira, eta baztertzeko arrazoiak ere azalduko dira.

12. Eskaintzen edukia

Esleitzeko hainbat irizpide erabiltzen direnean, lizitatzaileek hiru gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztu beharko dute proposamena, eta lizitatzaileak edo haren

ordezkariak sinatuko ditu: bat (a gutun-azala), aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin; bestea (B gutun-azala), balio-judizio baten araberako haztapen-irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioarekin; eta hirugarrena (C gutun-azala), baloratu beharreko dokumentazioarekin.

Irizpide kuantifikagarriak, Formulak aplikatuz bakarrik kuantifika daitezkeen irizpideak erabiltzen direnean, lizitatzaileek bi gutun-azal edo artxibo elektroniko aurkeztu beharko dituzte: a gutun-azala, aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin; eta C gutun-azala, formulak aplikatuz kuantifika daitezkeen irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioarekin.

12.1 *(A) Gutun-azala: aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.*

(A) Gutun-azalean hau aipatu beharko da:

"[*Kontratuaren izena*]

(A) Gutun-azala: aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

Lizitatzailea: [...]".

Erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da, **kontratazioko dokumentu europar bakarreko** inprimakiari jarraiki, sinatuta eta dagokion identifikazioarekin. Hor, lizitatzaileak hau adieraziko du:

(i) Sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela, helburu sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu ahal dela, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den ordezkaritza duela eskaintza eta adierazpena aurkezteko.

(ii) Dagokion sailkapena duela, hala behar denean, edo eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzazko, tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.

(iii) Ez duela bere kabuz, ez hedapenez, kontratatzeko debekurik, Herri Sektorearen Kontratuen Legearen 71.3 artikulua ezartzearen ondorioz.

(iv) E-postako helbide bat emango du, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertuz jakinarazteko sistemaren bidez izapidetu behar ez diren jakinarazpenak bidal diezazkioten, adibidez, kontratatzailearen profilean dokumentazio orokorra zuzentzeko eskaera bat edo eskaintzen irekiera-ekitaldi publikoaren berri argitaratu dela ohartarazteko, etab. E-postako helbide hori lizitatzaileak plataforma elektronikoko harremanetarako datuen pantailan eskaintza aurkeztean adierazten duen helbide bera izango da.

Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua honako helbide elektronikoaren bidez eskuratu ahal izango da:

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Enpresak beste enpresa batzuen kaudimen eta baliabideetara jotzen badu, Herri Sektorearen Kontratuen Legearen 75. artikuluarekin bat etorrita, haietako batek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, kasu horietan behar den

informazioarekin, kontratazioko dokumentu europar bakarraren formulario normalizatuari jarraiki egina. Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 75. artikuluaren 2. idatz-zatian aipatzen duen konpromisoa aurkezteko, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 140. artikuluaren 3. idatz-zatian xedatutakoa bete beharko da.

Karatulako 12. puntuan behin-behineko bermea eratzeko beharra eskatuz gero, bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentua aurkeztuko da.

Hainbat enpresaburu aldi baterako batasun-enpresa batean bilduta aurkezten direnean, parte hartzen duen enpresa bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, eta, hor, kontratazioko dokumentu europar bakarreko formularioak kasu horietan eskatzen duen informazioa azaldu beharko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenaz edo adierazpenez gain, enpresa-batasuneko kide diren enpresaburuek aldi baterako enpresa-batasuna eratzeko hartutako konpromisoa aurkeztu beharko da, Herri Sektorearen Kontratuen Legeak 69. artikuluaren 3. idatz-zatian eskatutakoa betez.

Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek, kontratua Espainian betearazi behar dutenean, aitorpen bat aurkeztu beharko dute, eta, hor, argi adieraziko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan, Espainiako edozein motatako epaitegiren eta auzitegiren mende geldituko direla, eta, hala dagokionean, uko egingo diotela lizitatzaileari atzerrian egokitu dakiokeen foru jurisdikzionalari.

Karatulako 8. puntuan kontratuaren xedea lotetan zatitzea aurreikusten denean, kaudimen finantzarioa edo teknikoa eta profesionala izateko eskakizunak lote batetik bestera desberdinak badira, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da kaudimen-aldeko eskakizun berberak dituen lote bakoitzeko edo lote-multzo bakoitzeko.

Erantzukizunpeko adierazpena betetzea: atal honetan ezarritako kaudimen-irizpideak betetzen dituztela adieraziko dute lizitatzaileek, Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (DEUC) IV. atalean jasotako α adierazpen globala beteta

Horrez gain IV. Eranskinean atxikitako baldintza sozialei buruzko erantzukizunpeko adierazpena jaso beharko da.

Arrazoizko zalantzak baldin badaude adierazpenaren indarraldiaz edo fidagarritasunaz, edo prozedura behar bezala joan dadin beharrezkoa baldin bada, kontratazio-organoak edo mahaiak (edo plegu honetan jasotako antzeko organo batek) hautagaiei edo lizitatzaileei eskatu ahal izango diete justifikazioko dokumentu guztiak edo batzuk aurkez ditzaten, eta, nolanahi ere, hala egingo dute kontratua esleitu aurretik.

Hori gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoan Sailkatutako Lizitatzaileen eta Enpresen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko kide den estatu bateko datu-base nazional batean agertzen bada, enpresaren espediente birtual, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema, edo aurrekalifikazio sistema gisa, eta lehen aipatutako organoek hori doan eskuratzeko modua badute, ez da justifikazioko dokumenturik edo inskribatutako datuen dokumentu-probarik aurkeztu beharko lehen aipatutako tokietan.

Aurreko idatz-zatietan ageri diren gaitasun, kaudimen eta kontratatzeko debekuen absentziari buruzko inguruabarrek eskaintzak aurkezten diren azken egunean izan, eta kontratua burutzeko unean ere indarrean egon beharko dute.

12.2 *(B) Gutun-azala: Formulaz ezin kuantifika daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa*

(B) Gutun-azalak karatulako 16. puntuan adierazitako dokumentazio zehatza edukiko du barnean.

Gutun-azal honetan ez da inola ere sartu behar formulaz kuantifikatzeko moduko informaziorik.

12.3 *(C) Gutun-azala: Formulaz kuantifika daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa*

(C) Gutun-azalak karatulako 17. puntuan adierazitako dokumentazio zehatza edukiko du barnean.

13. Esleitzeko irizpideak

Eskaintzak karatulako 18. puntuan ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira.

14. Kontratazio Mahaia eratzea eta eskaintzak baloratzea

Karatularen 3. puntuan adierazten bada kontratua erregulazio harmonizatuaren menpe dagoela, kontratazio-mahai bat eratuko da, plegu honetan xedatzen diren osaerarekin eta funtzioekin.

Karatularen 3. puntuan adierazten bada kontratua ez dagoela erregulazio harmonizatuaren menpe, ez da kontratazio-mahairik eratuko, eta erakunde kontratatzaileak hartuko ditu bere gain plegu honetan mahaiari esleitzen zaizkion ekintzak.

14.1 *Kontratazio-mahaia*

(i) Eraketa:

Kontratu honen ondorioetarako, Biscaytik Fundazioaren Kontratazio Mahaia honela eratuko da:

- Presidentea: Fundazioko zuzendari nagusia;
- Idazkaria: Administrazio eta Azpiegiturak-saileko arduraduna; eta
- Mahaikidea: Fundazioko zuzendari teknikoa.
- Mahaikidea: Garapen eta Ustiapenaren burua.

Mahaiko kide finkoek langileak eskuordetu ahal izango dituzte, haien ordezkaritzan jarduteko.

(ii) Eraketa: Mahia baliozko moduan eratzeko, gutxienez, kontratazio-organoko presidentetzako eta idazkaritzako lanak egin behar dituztenek agertu beharko dute. Kontratuaren helburuari buruzko erabaki teknikoak hartu behar diren bileretan, Mahaia baliozko moduan eratuta egoteko, kontratazio-organoaren aholkularitza teknikoko lanak egin behar dituen mahaikideak ere agertu beharko du.

Idazkariak edo berak izendatutako pertsonak egingo ditu Mahaiaren bileretarako deiak, presidentearen aginduz, gutxienez 48 ordu lehenago.

(iii) Zereginak. Mahaiak Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak 326.2 artikuluan adierazitako eginkizunak izango ditu.

(iv) Akordioak hartzea: Mahaiak akordioak har ditzan, agertutakoen gehiengo soila beharko da. Botoetan hainbana gertatuz gero, presidenteak ebatziko du bere kalitatezko botoarekin.

(v) Mahaiari laguntza teknikoa ematea: Mahaiak teknikarien laguntza eskatu ahal izango du, soilik aholkularitza espezializatua emateko egiten diren bileretan.

14.2 *Mahaiak eskaintzak irekitzean egin beharreko jarduerak*

(i) (A) Gutun-azalak irekitzea eta kalifikatzea

Aurreko idatz-zatian ezarritako moduan mahaia eratu ondoren, saio pribatuan eta (B) Gutun-azala ireki aurretik, (A) Gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta kalifikatuko da.

(A) Gutun-azalak ireki ondoren mahaia ohartzen bada haietan jasotako dokumentazioan konpondu beharreko akatsen edo hutsen bat dagoela, edo dokumentazio horri buruzko argibideren bat behar dela, 3 egun balioduneko epea emango zaie lizitatzaileei akats edo huts horiek zuzendu edo argibideak eman ditzaten. Hala ere, lizitazio batean akats nabarmenak edo ezin konponduzko hutsune materialak aurkituz gero, ez da onartuko.

Akta idatzi eta egindako guztia hor jasoko da.

(ii) (B) Gutun-azala irekitzea

(A) Gutun-azalak ireki eta, hala behar denean, akatsak zuzendu ondoren, Mahaia karatulako 19. puntuan adierazitako lekuan, egunean eta orduan eratuko da, helburu honekin:

(a) Proposamenen onarpena edo ez-onarpena erabakitzea eta lizitatzaileei jakinaraztea zeintzuk onartu diren, eta, hala badagokio, zeintzuk ez diren onartu eta zergatik ez diren onartu. Jakinarazpen horri kalterik egin gabe, onartu ez diren enpresen zerrenda Erakunde Kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da

(b) (B) Gutun-azala irekitzea eta irakurtzea.

Egokitzat jotzen badu, Mahaiak kontratazioa sustatzen duen sailari (B) Gutun-azalak bidaltzea erabaki ahal izango du, (B) Gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta balora dezan, eta, orobat, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eta aholkularitza eskatu ahal izango ditu. Horrez gain, lizitatzaileei eskatu ahal izango die azalpenak eman ditzaten aurkeztutako edozein dokumenturi buruz.

Akta idatzi eta egindako guztia eta, orobat, (B) Gutun-azaleko dokumentazioaz egiten den balorazioa hor jasoko da.

(iii) (C) Gutun-azala irekitzea

(B) Gutun-azalak aztertu eta ebaluatu ondoren, Mahaia karatulako 20. puntuan adierazitako lekuan, egunean eta orduan eratuko da, helburu honekin:

(a) Lizitatzaileei (B) Gutun-azalen balorazioaren emaitza jakinaraztea; eta

(b) (C) Gutun-azala irekitzea eta irakurtzea.

Akta idatzi eta egindako guztia hor jasoko da.

(iv) (C) gutun-azala irekitzea irizpide automatikoak baino ez dituzten lizitazioetan:

Formulak aplikatuz bakarrik kuantifika daitezkeen irizpideak erabiltzen diren prozeduretan, karatulako 20. puntuan adierazitako tokian, egunean eta orduan eratuko da mahaia, helburu hauekin:

a) Proposamenak onartzea edo ez onartzea erabakitzea, eta lizitatzaileei jakinaraztea zein onartu diren eta, hala badagokio, zein ez diren onartu eta zergatik ez diren onartu. Jakinarazpen hori alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da onartu ez diren enpresen zerrenda; eta
b) Gutun-azala (C) ireki eta irakurri.

Akta egingo da eta egindako guztia jasoko da.

(v) Sailkapen-proposamena

Aurkeztutako eskaintzak ikusita, Mahaiak, behin betiko balorazioa egiteko behar diren txostenak eskatu ondoren, txosten tekniko bat prestatuko du, eta aurkeztutako eskaintzak sailkatuko ditu, handitik txikirako hurrenkeran, karatulako 18. puntuan ezarritako irizpideen arabera.

15. Anormaltasun susmoko eskaintzak

Eskaintza bat eginezina dela iritziz gero normala baino baxuagoa delako, artikulu honetan ezarritako prozedura izapidetu ondoren soilik utzi ahal izango da lizitazio prozeduratik kanpo.
Anormaltasun susmoko eskaintzak zein diren ikusteko, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85. artikuluan ezarritako irizpideak erabiliko dira, hau da:
1. Lizitatzaile bakarra egonez gero, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino gutxienez 25 unitate portzentual txikiagoko eskaintza izatea.
2. Bi lizitatzaile egonez gero, eskaintza bat bestea baino gutxienez 20 unitate portzentual txikiagoa izatea.
3. Hiru lizitatzaile egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino gutxienez 10 unitate portzentual txikiagoa izatea. Dena dela, batez besteko hori ateratzeko ez da kontuan izango zenbateko handieneko eskaintza, batez besteko hori baino gutxienez 10 unitate portzentual handiagoa baldin bada. Kasu guztietan neurrigabetzat hartuko da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino gutxienez 25 unitate portzentual baxuagoa izatea.
4. Lau lizitatzaile edo gehiago egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino gutxienez 10 unitate portzentual txikiagoa izatea. Dena dela, batez besteko hori baino 10 unitate portzentual gehiagoko eskaintzak egonez gero, batez

besteko berri bat kalkulatuko da soilik adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin. Hala ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kalkulatzeko kopuru txikieneko hiru eskaintzak hartuko dira.
Anormaltasun susmoko eskaintza bat edo gehiago identifikatzen direnean, mahaiak eskatuko die eskaintza hori edo horiek aurkeztutako lizitatzaileari edo lizitatzaileei bost (5) eguneko epean justifikatu eta banakatu ditzatela arrazoiz eta xehetasun osoz prezio edo kostu baxuak edo eskaintzaren anormaltasunaren oinarrian dagoen beste edozein parametro, ondorio horietarako nahitaezko informazioa eta agiriak aurkeztuz.
Lizitatzaileari egingo zaion informazio eskaria argia izan behar da, lizitatzaileak eskaintzaren bideragarritasuna erabat eta behar bezala justifikatzeko aukera izan dezan.
Zehatz esateko, lizitatzaileei justifikazioak eskatu ahal izango zaizkie eskaintzaren prezio edo kostu baxuak zehazteko erabili diren baldintzei buruz eta, bereziki, balio hauei buruz:

a) Fabrikazio prozedurak, eskainitako zerbitzuek edo eraikuntzako metodoak ekar dezaketen aurrezpena.
b) Lizitatzaileak produktuak eta zerbitzuak emateko edo obrak egiteko hartutako irtenbide teknikoak eta bere alde dituen ohiz kanpoko baldintzak.
c) Produktuz hornitzeko, zerbitzuak eskaintzeko edo obrak egiteko proposatutako irtenbideen berrikuntza eta originaltasuna.
d) Ingurumen, gizarte edo lan arloan eta azpikontratazioaren arloan ezarri beharreko betebeharren errespetua; ez dira justifikagarriak izango merkatuko prezioen azpitik daudenak edo 201. artikuluan ezarritakoa betetzen ez dutenak.
e) Edo Estatuaren laguntza bat lortzeko aukera.

Eskaintzak atzera botako dira ezohikoa baino askoz baxuagoak direla ikusten bada, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo nazioko edo nazioarteko ingurumen, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzen ez direlako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.
Lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua behar bezala ez dela justifikatzen esango da, justifikazio hori osoa ez bada edo hipotesi edo praktika desegokietan oinarritzen bada ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik.
Lizitatzaileak epean emandako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du kontratazio mahaiak, eta kontratazio organoari arrazoituta igorriko dio onartzeko edo atzera botatzeko proposamena.

Kontratazio organoak uste izango balu jasotako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposatutako prezioak edo kostuak hain baxuak zergatik diren, eta, ondorioz, ezohiko balioak dituelako eskaintza ezin dela bete uste izango balu, eskaintza hori sailkapenetik kanpo geratuko da.

16. Eskaintzen sailkapena. Kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia eta prozedura bertan behera uztea

Kontratazio mahaiak edo xede horretarako eratutako organo kolegiatuak edo, horrelakorik ezean, kontratazio organoak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, aurreko artikuluan adierazitakoaren arabera anormaltzat edo desproportzionatutzat jo ez diren proposamenak, eta, ondoren, kontratazio organora bidaliko du dagokion proposamena, sailkapen hori kontratazio mahaiak edo horretarako eratutako organo kolegiatuak eginez gero.

Sailkapen hori egiteko, karatulako 18. puntuan adierazitako esleipen irizpideak erabiliko dira.

Eskaintzak baloratzeko irizpideen arabera bi proposamen edo gehiago abantaila berdinak dituztelako berdinduta egonez gero, esleipenerako lehentasuna izango dute enpresa hauek:

(i) Lehenengo, esleipenaren oinarrizko irizpideen ikuspegitik bi enpresa lizitatzaile edo gehiago berdinduta egonez gero, lehentasuna izango du eskaintza aurkezteko epemugan bere plantillan desgaitasuna duten 100eko 2 langile baino gehiago dituen enpresak.

Abantailarik handieneko sailkapenean berdinduta dauden zenbait enpresa lizitatzailek ziurtatzen badute haiekin lan-harremana duten pertsonen 100eko 2k baino gehiagok desgaitasuna dutela, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzaileak izango du kontratua esleitzeko lehentasuna.

(ii) Ondoren, ekonomikoki onuragarrienak baldintza berdinetan badaude, gizarteratze enpresak erregulatzen dituen abenduaren 13ko 44/2004 Legean araututako enpresen proposamenek lehentasuna izango dute, gizarteratze enpresatzat hartzeko araudi horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

(iii) Proposamenen arteko berdinketak iraun egingo balu edo aurreko ataletan ezarritakoaren arabera enpresetako inork ez balu esleitzeko lehentasunik, erakunde publikoren batek emandako "emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunean lankidetzan aritzen den erakunde" ziurtagiria duena izango da esleipenduna. Hala ere berdinketak jarraituko balu, esleitzeko irizpideetan pisurik handiena duen irizpidean puntuaziorik handiena lortzen duena izango da esleipenduna. Eta berdinketak jarraituko balu, irizpide bakoitzari eman zaion garrantziaren arabera egingo da esleipena, eta berdinketak jarraituko balu, zozketa egingo da.

(iv) Atal honetan berdinketa hausteko aipatzen diren irizpideen ziurtagiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dituzte enpresa lizitatzaileek, eta ez aurrez, nahiz eta baldintzen konkurrentzia baloratzeko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango den. Hori dela eta, enpresa lizitatzaileak V. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du xede horretarako.

Kontratazio organoak xede horretarako eratutako Mahaiaren edo organo kolegiatuaren proposamena onartutakoan, dagokien zerbitzuek egiaztagiri hauek eskatuko dizkiote SPKLko 145. artikuluan xedatutakoaren arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari: SPKLko 140. artikuluko 1. paragrafoaren a) idatz-zatitik c) idatz-zatira aipatzen diren inguruabarren egiaztagiriak, aurrez aurkeztu ez baditu, nahiz lizitatzailearenak nahiz baliatuko dituen beste enpresenak, artikulu horretako bigarren paragrafoko 3. atalean ezarritakoari kalterik egin gabe; zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean dagoela justifikatzen duen dokumentazioa; kontratua egikaritzeko hitzeman dituen baliabideak egiazki badituela egiaztatzen duten agiriak, 76.2 artikuluari jarraituz, Biscaytik Fundazioaren Hornitzaileen Kode Etikoari eta Ustelkeriaren Prebentziorako Kodeari atxikitzeko adierazpen sinatua eta karatularen 13. puntuan ezarritako behin betiko bermea jarri izanari buruzko egiaztagiriak. Hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriok, errekerimendua jaso duen biharamunetik kontatzen hasita. Ziurtagiri

horiek bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egin ahal izango dira.
Errekerimendua aipatutako epean egoki betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin-behineko bermearekin ordainduko da, baldin eta hori jarri bada, alde batera utzi gabe SPKLko 71. artikuluaren 2. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritakoa.
Aurreko lerroaldean adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.
Kontratazio organoak dagokion deialdia egina duen adjudikazio-prozedurari uko egiten badio edo kontratu bat ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordea ere erabaki horren jakinaren gainean jarriko du, baldin eta kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.
Kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahalko du kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea edo prozeduran atzera egitea. Halakoetan, kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei edo lizitatzaileei, egin dituzten gastuak direla-eta, karatularen 21. puntuan ezarritako moduan.

17. Kontratua esleitzea, ebaztea eta jakinaraztea

Kontratazioko organoak dokumentazio jaso osteko hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

Ezingo da lizitazio bat esleitu gabe utzi honako agiri honetan jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat dagoenean.

Esleitzeko ebazpenak arrazoitua beharko du izan, eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei jakinaraziko zaie; kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epearen barruan.

SPKLaren 155. artikuluaren 1. idatz-zatian finkatutakoari kalterik eragin gabe, aurreko paragrafoek erreferentzia egiten dieten jakinarazpenean eta publizitatean esleitzeko prozeduran interesa dutenei esleitzeko erabakiaren aurka nahikoa oinarriko helegitea aurkezteko aukera emango dien behar hainbateko informazioa jaso beharko da.

SPKLaren 153. artikuluaren 3. idatz-zatian jasotakoaren arabera, jakinarazpenean kontratua formalizatu beharreko epea adieraziko da.

SPKLaren Hamabosgarren Xedapen Gehigarrian finkatuta dagoenaren arabera, jakinarazpena baliabide elektronikoan erabiliz gauzatuko da.

18. Kontratua formalizatzea

Esleipendunaren eskaintzak, espedientea osatzen duten gainerako dokumentazioarekin batera, kontratu-dokumentazioaren zati bat osatuko du.

Sortaka esleitutako kontratuetan, sorta bakoitzak kontratu bana osatuko du, ezpada eskaintza integratzaileak aurkezten diren kasuetan; haietan, eskaintza guztiek kontratu bakar bat osatuko dute.

Kontratua formalizatzeko, ondorengo arau hauek jarraitu beharko dira:

(i) Baldin eta kontratuari SPKLaren 44. artikuluaren arabera kontratazio arloko helegite berezia jarri ahal bazaio, formalizazioa ezingo da egin esleitzearen jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek kontratua formalizatzeko eskatuko diote esleipendunari, kontratua bost egun baino gutxiagoko epean formaliza dezan, errekerimendua jaso osteko egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusita dagoen epea igarota kontratuaren formalizazioa galaraztea eragingo lukeen helegitea aurkeztu ezean. Era berean jokatu beharko litzateke helegitea ebazteko eskumena duen organoak galarazpena baliogabetuz gero ere.

(ii) Gainerako kasuetan, SPKLaren 151. artikuluan aurreikusita dagoen moduan, lizitatzaile eta hautagaiei esleipenaren berri jakinarazitako egunaren ondorengo hamabost egun baliodunen barruan gauzatu beharko da kontratuaren formalizazioa.

Esleipendunari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik errekerimendua adierazitako epean egoki formalizatu ez bada, lizitazioko oinarrizko ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa; behin-behineko bermearen aurka gauzatuko da lehenik, baldin eta horrelakorik osatuta balego, SPKLaren 71. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran finkatuta dagoenari kalterik eragin gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta gelditu diren hurrenkeraren arabera, aldez aurretik SPKLaren 150. artikuluko 2. idatz-zatian erabakitako dagoen dokumentazioa aurkeztuta; aurreko atalean finkatuta dauden epeak aplikatu beharko dira.

Kontratuaren formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratu beharko da, kontratazio organoaren kontratatzaile profilean kontratuaren hobekuntza osteko hamabost eguneko epearen barruan. Kontratua arautze harmonizatura lotuta dagoenean, formalizazio iragarkia «Europako Batasuneko Egunkari Ofizialean» argitaratu beharko da gainera.

III. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

19. Kontratua betearazteko baldintzak

Esleipendunaren betebeharrak pliego hauetan eta kontratuan jasotakoak izango dira.

Betebehar horiek ez betetzeak edo oker betetzeak Administrazio klausulen plegu honetan edo Zehaztapen Teknikoen txostenean aurreikusitako zigorrak eragin ahal izango ditu.

20. Kontratua aldatzea

Erakunde kontratatzaileak kontratua aldatu ahal izango du, Pleguetan edo kontratuan adierazita dagoen eran.

21. Betearazteko baldintza bereziak

Kontratua betearazteko garaian, esleipendunak adierazita dauden betearazteko baldintza bereziak bete beharko ditu, eta behar bezala beteta aurkeztu beharko ditu A gutun-azalean. Lehiaketa honetan erabakitako baldintza bereziak betetzen direla zaintzeko,

lizitatzaileak urtero erantzukizuneko adierazpen bat aurkeztu beharko du, betetzen ari direla adieraziz. Edonola ere, erakunde kontratatzaileak bere esku du betetzea egiaztatzeko dokumentazioa eskatzeko ahalmena.

20. atal honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeak kontratua baliogabetzea eragin dezake, bai eta Administrazio klausulen plegu hoetan eta/edo Zehaztapen Teknikoen txostenean aurreikusitako zigorrak ezartzea ere.

22. Zeapenak

Txosten edo Espezifikazio Teknikoen Agirian berariaz ezarritako penalizazio bereziez gain, Jabetzak honako zigor hauek ezarri ahal izango dizkio kontratistari:

22.1 Zati baten ez betetzea edota betetze akastuna

Prestazioa akatsekin ematen bada edo Kontratuan, Pleguetan eta gainerako agirietan Kontratua gauzatzeari dagokionez ezarritako baldintza bereziak nahiz konpromisoak bete ezean, honakoak barne, eta inolako mugarik gabe: langileak subrogatzea dela-eta SPKLren 130. artikuluan ezartzen diren betebeharren ez betetzea, ingurumen, gizarte eta lan arloko betebeharren ez betetzea (bereziki, ordainsarien ordainketan behin eta berriz berandutu edota hitzarmen kolektiboetan jasotako baldintzetara iristen ez diren ordainsariak aplikatzearen ondoriozkoak, horiek larriak edota nahita egindakoak direnean), edota azpikontratazioen alorreko ez betetzea, zigorrak ezarri ahalko dira.

Zigorrak ez betetze bakoitzaren larritasun-mailaren araberakoak izango dira.

Zigor bakoitzari dagokion zenbatekoa ezingo da izan Kontratu-prezioaren % 10 baino handiagoa, BEZ gabe, eta guztira ezingo dute gainditu Kontratu-prezioaren % 50.

Kontratuan zehazturiko prestazioen ez betetzea Kontratistari egozteko modukoa izanez gero, Jabeak erabaki ahalko du, kasuan-kasuan, kontratua amaitu ala zigorrak ezarri.

22.2 Betearazpenean berandutzea

Kontratista berandutza egoeran jartzeko ez da beharko Jabearen aurretiazko egintzarik.

Kontratista betetze epean berandutuko balitz, berandutze hori Kontratistari berari egozteko modukoa izanik, Jabeak aukeran izango du, kasuan-kasuan, kontratua amaitu ala zigorra ezarri: 0,60 euro egunean Kontratu-prezioko 1.000 euro bakoitzeko, BEZ gabe.

Berandutzagatiko zigorrek Kontratu-prezioaren % 5 multiploa duen zenbatekoa erdietsiz gero, BEZ gabe, Jabeak erabakiko du, Kontratua amaitu ala Kontratuarekin aurrera egin, zehapen berriak ezarrita, betiere.

Kontratistak epe partzialen bat beteko ez balu, Jabeak aurreko ataletan aipaturiko ahalmen berberak izango ditu.

22.3 Zigorren ezarpena

Aurreikusitako zigorrak Jabearen erabakiz ezarriko dira. Horiek gauzatzeko, Kontratistari berme gisa egin beharreko azken ordainketatik nahiz ordainketa partzialetik kenduko dira, baldin eta halakorik eratuta egongo balitz.

Ez betetze partzial, betetze akastun edota berandutzagatiko zigorrek ez badituzte Jabeari sorrarazitako kalteak estaltzen, azken horren kalte-galerengatiko kalte-ordaindak eskatuko dizkio Kontratistari.

23. Kontratua suntsiaraztea

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira kontratuaren agirietan eta gainerako agirietan berariaz jasotakoak, bai eta zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoak ere, alderdiei egotz dakizkiekeen ez-betetzeen kasuan.
Kontratua suntsiarazteko kausa izango da, nolanahi ere, prestazioa hasieran itundutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua SPKLren 204. eta 205. artikuluen arabera aldatu ezin denean, bai eta lege beraren 211. artikuluaren i) letran jasotako arrazoia ere.

IV. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

24. Jakinarazpenak

Prozeduraren izapideak egiteak berekin ekarriko du horrekin lotutako oharrak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bitartez bakarrik gauzatzea.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoan xedatua gorabehera, ahozko komunikazioa erabili ahal izango da kontratazio prozedura batean funtsezko elementuei dagozkienez bestelako komunikazio-jardueretarako, betiere baldin eta ahozko komunikazioaren edukia nahikoa dokumentatuta badago. Horri dagokionez, kontratazio prozedura bateko funtsezko elementuetan honako hauek sartzen dira: kontratazioko agiriak, parte hartzeko eskariak eta eskaintzak. Bereziki, eskaintzen edukian eta ebaluazioan funtsean eragin dezaketen lizitatzaileekin lotutako ahozko komunikazio-jarduerak behar hainbat dokumentatuko dira, baliabide egokien bitartez, hala nola komunikazioaren elementu nagusietako artxiboak edo laburpen idatzizkoak edo soinuzkoak.

Jakinarazpenak prestatutako helbide elektronikoen bitartez edo agertze elektronikoen bitartez.

Jakinarazpenetik zenbatzen hasitako epeak hura bidalitako egunetik edo oharraren berri emandako egunetik zehaztuko dira, baldin eta agertze elektroniko bitartez egingo balitz, betiere baldin eta jakinarazpena egiteko ekintza egun berean kontratazio organoko kontratatzailearen profilean argitaratu bada. Hala izango ez baldin balitz, epeak interesdunak ohartarazpena jaso duenetik zehaztuko dira.

Hala eta guztiz ere, kontratatzailearen profilean publizitatearen baldintza ez da aplikagarria izango eskumena duten organoek ebazteko baliabide bereziko prozedura dela bide gauzatutako ohartarazpenetan; epeak ohartarazpena bidalitako egunetik edo

ohartarazpenaren oharra bidalitako egunetik hasita zehaztuko dira epeak, baldin eta agertze elektroniko bitartez izango balitz.

25. Prezioak berraztertzea

Prezioak berraztertzeari dagokionez, karatulako 22. puntuan adierazitakoa hartuko da kontuan: bertan adieraziko da egokia den ala ez prezioak berraztertzea eta aplikagarria den formula.

26. Epeak

Aurkako adierazpen berariazkorik izan ezean, honako agiri honetan dauden epe guztiak egutegiko egunei dagokienak direla ulertzen da.

27. Aldagaien onargarritasuna

Aldagaiak txertatzeko aukera karatulako 23. puntuan zehaztuko da.

Baldin eta onargarriak diren kasuan, aldagaiek haietan eragiten duten eskaintzako elementu guztiak zehaztu beharko dituzte.

28. Subrogazioa

Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek esleipendunari lan harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dionean, karatulako 26. puntuan neurri horrek ekarriko dituen lan kostuen ebaluazio zehatza ahalbidetzeko beharrezkoa izango den subrogazioak eragingo dien langileen kontratuetako baldintzei buruzko informazioa emango zaie lizitatzaileei; informazio hori SPKLaren 130. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko xedearekin ematen da.

2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuan onesten den Langileen Estatutuaren Legearen testu bategineko 44. artikuluan finkatutakoa aplikatzeari, hala egin beharko balitz, kalterik eragin gabe, kontratatzailearen betebeharra izango da subrogazioaren eragina jaso duten langileei ordaindu gabeko soldatak ordaintzea, eta bai sortutako Segurtasun Sozialeko kotizazioak ere, baita kontratua baliogabetu eta haiek kontratista berriak subrogatuz gero ere; betebehar hori inolaz ere ez zaio azken horri egokituko.

29. Bestelako informazioa

Halaber, lizitatzaileak kontuan hartu beharko du, 29. puntuan jasota dagoen informazio gehigarria.

30. Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako bere datuak
Biscaytik Fundazioa
Zugazarte etorbidea 32, Getxo – 48930 – Bizkaia
Telefonoa/Faxa: 94 600 00 20/94 600 00 21
Emaila: Biscaytik@Biscaytik.eus
IFK: G95555850

Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko
Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burutza.
On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo.

Datuak gordetzearen helburua eta denbora

Biscaytik Fundazioak kudeatutako obra, zerbitzu edo hornidura guztiak kontratatzeko. Datuak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira.

Tratamenduaren legitimazioa

Zure datu pertsonalak kontratuen arloko tresna juridikoak garatzeko (DBEOren 6.1. b artikulua) eta Biscaytik Fundazioari aplika dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko (DBEOren 6.1. c artikulua) tratatzen ditugu.

Datuen tratamendua legitimatzen duten legeak honako hauek dira:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, uztailaren 4ko 16/2007 Legearen azken xedapenetatik lehenengoari dagokionez.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontu, Zerga eta Kontratazio Publikoari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Datuen komunikazioak

Jarraian adieraziko ditugun datu-lagapenak legitimatuta daude lehen aipatutako legeen legezko betebeharrak betetzeari dagokionez. Zehatzago esanda, datuen komunikazio hauek egiten ditugu:

- Zerga-arloan eskumena duten administrazio publikoak.
- Fundazioen erregistroa.
- Kontuen Auzitegia eta Autonomia Erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoak, organo horiek eskatuta, Herri Administrazioetako organo ikuskatzaile nagusi gisa dituzten eginkizunak garatzeko.

Zeintzuk dira pertsonen eskubideak?

Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eta datuen tratamendua mugatzeko edo tratamendu horien aurka egiteko eskubidea. Eskubide horiek baliatu ahal izateko, nortasuna egiaztatu ondoren, idazki bat bidali behar da tratamenduaren arduradunaren helbidera.
2. Era berean, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzan (Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa) erreklamazioak egiteko.

31. Datu pertsonalen tratamenduak, Biscaytik Fundazioa tratamenduaren arduradun gisa jardutean

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, datu pertsonalen tratamendua eragiten duten kontratuak formalizatzen direnean eta, aldi berean, kontratua formalizatzen duen pertsonak (fisikoa edo juridikoa, aurrerantzean, kontratista) izaera pertsonaleko datuak eskuratzen dituenean:

- kontratista hori tratamendu-eragilea izango da, eta **datu pertsonalak eskuratu** ahal izango ditu eta/edo haien tratamendua egin

- kontratua sustatzen duen Biscaytik Fundazioaren kontura (aurrerantzean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea), zeina **datuen tratamenduaren arduraduna** izango den

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28. artikuluan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, aurrerantzean DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat (Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa, aurrerantzean DBEDBLO). Alderdi bientzat, datuen babesari buruzko araudiaren mendean jartzeko adierazpena (DBEO eta DBEDBLO): araudi hori kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa da, eta kontratistak eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak nahitaez bete behar dute; bi alderdiek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudi honetan ezartzen diren betebehar eta estipulazio guztiak. Bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte, halaber, klausula honetan eta gainerako baldintza-agirietan datuak babesteko xedatutako betebehar eta estipulazio guztiak. Alderdi biak datuen babeserako araudiaren (DBEO eta DBEDBLO) menpe jartzeko adierazpena kontratua egikaritzeko baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

Araudian ezarri denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta kontratistak, tratamenduaren eragile gisa, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen aginduak bete beharko ditu, bai eta neurri hauek ere:

Datu pertsonalen tratamendua:

Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak tratamenduaren arduraduna izatetik datozkion erantzukizunak eta betebeharrak ditu, eta kontratua formalizatuko duen pertsonak, berriz, tratamendu-eragilea izatetik datozkion erantzukizuna eta betebeharrak.

Hauek dagozkio tratamenduaren arduradunari:

a) Baimena ematea «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean datuak tratatzeko zehazten diren jarduerak egiteko (PTA).

b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta a posteriori ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.

c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketetako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.

Datu pertsonalen tratamendua" eranskina ad hoc prestatutako jarraibideen idazkia da. Idazki horretan, alderdi hauek zehazten dira: babestu behar diren datu pertsonalak, egin behar den datuen tratamendua eta haien xedea, eta kontratistak inplementatu behar dituen neurriak. Kontratistak datuak "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiliko balitu, komunikatu egingo balitu edo kontratuan eta/edo indarreko araudian ezarrita dauden estipulazioak bete gabe erabiliko balitu, tratamenduaren arduraduntzat joko litzateke, eta maila pertsonalean egindako arau-hausteen erantzule izango litzateke.

Behin kontratua formalizatuta dagoela eta hura exekutatu bitartean beharrezkoa balitz « Datu pertsonalen tratamendua » eranskinean estipulatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, kontratistak eskaera arrazoitua egingo du eta adieraziko du zer alderdi aldatu edo egokitu nahi dituen. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea eskatu denarekin ados egonez gero, «Datu pertsonalen tratamendua» eranskin eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

Tratamendu-eragileentzako estipulazioak

DBEOren 28. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera, kontratistaren betebeharra izango da betebehar hauek betetzea eta bermatzea, "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztu denarekin osatzen direnak:

a) Klausula honetan jasotzen diren jarraibideekin bat edo kontratuaren exekuziorako aplikatzekoak diren gainerako agiriekin bat edo, hala denean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailetik kasuan-kasuan idatziz jasotako jarraibideekin bat tratatzea datu pertsonalak. Kontratistak 10 egun balioduneko epearen barruan jakinaraziko dio Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari uste badu jarraibide horietako bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela.

b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburua jakinaraztea, eta datu pertsonalak ez erabiltzea jakinarazitako helburua eta kontratuaren helburua ez den beste baterako. Betebehar hori funtsezkoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

c) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideen eta edukiaren arabera tratatzea, eta erabiltzen dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu eta betetzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoaren esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

Kontratua formalizatu aurretik, pertsona kontratistak adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan jaso beharko du non egongo diren zerbitzariak kokatuta eta nondik emango dituzten haiei lotutako zerbitzuak. Kontratua indarrean dagoen bitartean, pertsonakontratista behartuta dago jakinaraztera adierazpenean jasotako informazioaren edozein aldaketa (adierazpen horretan jasotzen da zerbitzarien kokapena eta zerbitzuak nondik emango diren). Betebehar horiek funtsezkoak dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

d) Kontratua gauzatzeko erabiltzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

Kontratistaren menpe tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebehar hori, eta, era berean, kontratistaren ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki bere menpe dituzten pertsonak ohartaraztea sekretu-betebeharraz eta hura gordetzen jarraitu behar dutela zerbitzua bukatutakoan ere edo zerbitzuarekiko lotura galdu badute ere.

e) Agiri honen helburu diren datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak betetzeko (pertsona horiei behar jakinaraziko dizkie neurriok). Era berean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jartzea egiaztatzeko dokumentazio hori.

f) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonek datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza dutela bermatzea.

g) Hirugarren pertsonei ez komunikatzea (lagapenean uztea) eta zabaltzea datu pertsonalik, datuak kontserbatzeko bada ere; salbuespena da horretarako tratamenduaren arduradunaren baimen espresua dagoenean.

h) Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean, eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinaraztea, baita izendapena borondatezkoa denean ere.

Hala badagokio, kontratistak datu pertsonalak babesteko ordezkari izendatutako pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea.

i) Honako agiri honen xedea den kontratu-prestazioa amaitu ondoren, kasuan kasu eta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean agintzen denaren arabera, konpromisoa hartzen du datu hauek itzultzeko edo suntsitzeko:

eskuratu dituen datu pertsonalak

kontratistak tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak

datu horiek biltzen dituzten euskarriak eta agiriak, inolako kopiarik gorde gabe

salbu eta legez edo Batasuneko zuzenbidearen arauz haien kontserbazioa baimentzen edo eskatzen bada, kasu horretan ez baitira suntsituko. Hala ere, kontratistak datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora gutxien kontserbatuko dira, eta epe hori amaitu bezain laster suntsituko dira modu seguruan eta behin betiko.

j) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea (PTA).

l) DBEOren 33. artikuluak ezartzen duenarekin bat, berehala komunikatzea Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari, gehienez ere 72 orduko epearen barruan, bere ardurapean dauden datu pertsonalen segurtasuna hautsi denean, hala gertatu dela jakitun bada. Era berean, horri edozein informazio jakinaraziko dio informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo hutsegite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa dena, bai eta kontratua exekutatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharraren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa ere. Informazio xehea komunikatuko du lehenbailehen horri buruz, zehatz adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galerarik.

m) Pertsona fisiko batek kontratistarekin datuen babesaren arloko eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, tratamendua mugatzea, eta banakako erabaki automatizatuak edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuk ez hartzea), kontratistak jakinarazi behar dio hori ahalik eta lasterren Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari. Komunikazioa berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubidearen egikaritza jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioarekin eta bestelako informazioekin batera, eskubidea egikaritzen duenaren identifikazio sinesgarria barne. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari lagunduko dio, ahal den guztietan, hark eskubide-egikaritzak bete eta erantzun ditzan.

n) Laguntza ematea Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari haren betebeharrak betetzen: segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritza eskudunei eta interesdunei

komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, hala behar denean.

Halaber, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarriko du, hark eskatuta, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta lagunduko du Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak, hala badagokio, auditoriak eta ikuskapenak egiten dituenean.

ñ) Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen (tratamenduaren arduradunaren) kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinean jasoko baitira, gutxienez, artikulu horrek aipatzen dituen inguruabarrak. Horrela, bada, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

Kontratistaren izena eta harremanetarako datuak edo, hala behar denean, tratamenduaren ardura duten beste pertsona batzuenak eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearenak (tratamenduaren arduraduna).

Eginiko tratamenduen kategoriak.

Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-arlokoen azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:

Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.

Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.

Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.

Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

o) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea. Adibidea: auditorien emaitzen betetze-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak, zeinak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarri beharko baititu berak eskatuta. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, unean-unean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarriko ditu.

p) Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean kontratista denak informazioa eman beharko du egingo diren datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazketa eta

formatua Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearekin adostu behar dira, datuak biltzen hasi aurretik.

Klausula honek eta bertan ezarritako betebeharrek eta "datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskinak" osatzen dute Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen eta kontratistaren arteko tratamendu-mandatuaren kontratua, zeina DBEOren 28.3 artikuluan aipatzen den. Hemen adierazitako betebeharrak eta prestazioak ez dira ordainduko baldintza-agirietan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitakoaz gain edo bestelako moduan, eta baldintza-agiri honen eta beraren kontratuaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, kontratua luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, kontratua amaitutakoan, sekretu-eginbeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, kontratuaren exekuzioarekin zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

Baldintza-agiri honen xedea betetzeko ez da beharrezkoa kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea, eta, beraz, ez dago baimenduta "datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzea edo tratatzea. Kontratua exekutatu bitartean gorabeheraren bat gertatuz gero eta, horren ondorioz, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen ardurapeko datu pertsonaletara ustekabean edo gorabeheraren batengatik sartu behar bada ("datu pertsonalen tratamendua" eranskinean ez daude jasota), kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta arretarik handienarekin eta 72 orduko epean beranduenez.

<u>Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpimandatuak:</u>

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu nahi badu kontratuaren exekuzioa, eta azpikontratistak, kontratatua izanez gero, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, kontratistak hori aldez aurretik jakinaraziko dio Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari, eta datu pertsonalen zer tratamendu dakarren adieraziko dio, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratu horri baimena eman ala ez.

Nolanahi ere, azpikontratazioa baimentzeko, ezinbesteko betekizuna da baldintza hauek betetzea; nahiz eta baldintza horiek bete, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari dagokion baimen hori emateko edo ez emateko erabakia hartzea:

• Azpikontratistak datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, baldintza-agiri honetan jasotakora eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen jarraibideetara egokitzea.

• Kontratistak eta azpikontratistak datuak tratatzeko mandatu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldintzetan. Kontratu hori Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen

esku jarriko da, errekerimendua egiten zaionean, kontratu horren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk kontratatzen badira edo daudenak aldatzen badira, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak aukera izan dezan baimena emateko. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak erantzuten ez badio kontratistaren eskaerari, horrek esan nahi du eskaeraren kontra dagoela.

Kontratistak hirugarren pertsonekin azpikontratatu nahi baditu zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak, nahitaezkoa da lizitatzaileek aldez aurretik adieraztea eskaintzan enpresaren izena edo profila, kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua, azpikontratistei dagokienez. Betebehar hori funtsezkoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

SPKLren 215.4 artikuluaren arabera, azpikontratistek kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, foru-erakunde kontratatzailearekiko erantzukizun osoa kontratua egikaritzeko. Datuen babesaren arloari dagokionez, baldintza-agirian eta kontratuan xedatutakoa zorrotz bete beharko da, bai eta SPKLren 202.1 artikuluan jasotako betebeharra ere (DBEO eta DBEDBLO datuen babeserako araudiaren menpe jartzea).

32. Datu pertsonalen tratamenduak, Biscaytik Fundazioa tratamendua-eragile gisa jardutean

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez, datu pertsonalen tratamendua eragiten duten kontratuak formalizatzen direnean eta, aldi berean, kontratua formalizatzen duen pertsonak (fisikoa edo juridikoa, aurrerantzean, kontratista) izaera pertsonaleko datuak eskuratzen dituenean:

- kontratista hori **tratamendu-eragilea** izango da, eta datu pertsonalak eskuratu ahal izango ditu eta/edo haien tratamendua egin

- kontratua sustatzen duen Biscaytik Fundazioaren kontura (aurrerantzean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea), zeina Bizkaiko udal erakundeen tratamenduen **datuen tratamendu-eragilea** izango den

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28. artikuluan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, aurrerantzean DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat (Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa, aurrerantzean DBEDBLO). Alderdi bientzat, datuen babesari buruzko araudiaren mendean jartzeko adierazpena (DBEO eta DBEDBLO): araudi hori kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa da, eta kontratistak eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak nahitaez bete behar dute; bi alderdiek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteko araudi honetan ezartzen diren

betebehar eta estipulazio guztiak. Bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte, halaber, klausula honetan eta gainerako baldintza-agirietan datuak babesteko xedatutako betebehar eta estipulazio guztiak. Alderdi biak datuen babeserako araudiaren (DBEO eta DBEDBLO) menpe jartzeko adierazpena kontratua egikaritzeko baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

Araudian ezarri denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta kontratistak, tratamenduaren eragile gisa, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen aginduak bete beharko ditu, bai eta neurri hauek ere:

Datu pertsonalen tratamendua:

Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak udal erakundeen tratamenduen datuen tratamendu-eragilea izatetik datozkion erantzukizunak eta betebeharrak ditu, eta kontratua formalizatuko duen pertsonak, berriz, tratamendu-eragilea izatetik datozkion erantzukizuna eta betebeharrak.

Hauek figura honi dagozkio:
a) Baimena ematea «Datu pertsonalen tratamendua» eranskinean datuak tratatzeko zehazten diren jarduerak egiteko (PTA).

b) Aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatzea eta a posteriori ikuskatzea datuen babesari buruzko araudia betetzen dela.

c) Araudiarekin bat egin beharreko tratamendu-eragiketetako datu pertsonalen babesari buruzko ikuskapenak, auditoriak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d) Beharrezkoak diren aurretiazko kontsultak egitea.

Datu pertsonalen tratamendua" eranskina ad hoc prestatutako jarraibideen idazkia da. Idazki horretan, alderdi hauek zehazten dira: babestu behar diren datu pertsonalak, egin behar den datuen tratamendua eta haien xedea, eta kontratistak inplementatu behar dituen neurriak. Kontratistak datuak "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiliko balitu, komunikatu egingo balitu edo kontratuan eta/edo indarreko araudian ezarrita dauden estipulazioak bete gabe erabiliko balitu, tratamenduaren arduraduntzat joko litzateke, eta maila pertsonalean egindako arau-hausteen erantzule izango litzateke.

Behin kontratua formalizatuta dagoela eta hura exekutatu bitartean beharrezkoa balitz « Datu pertsonalen tratamendua » eranskinean estipulatutakoa aldatzea edo egokitzea, orduan, kontratistak eskaera arrazoitua egingo du eta adieraziko du zer alderdi aldatu edo egokitu nahi dituen. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea eskatu denarekin ados egonez gero, «Datu pertsonalen tratamendua» eranskin eguneratu bat emango litzateke, tratamenduaren zehaztasun guztiak fideltasunez jasoko lituzkeena.

Tratamendu-eragileentzako, esleipendunentzako, estipulazioak

DBEOren 28. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoaren arabera, kontratistaren betebeharra izango da betebehar hauek betetzea eta bermatzea, "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztu denarekin osatzen direnak:

a) Klausula honetan jasotzen diren jarraibideekin bat edo kontratuaren exekuziorako aplikatzekoak diren gainerako agiriekin bat edo, hala denean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailetik kasuan-kasuan idatziz jasotako jarraibideekin bat tratatzea datu pertsonalak. Kontratistak 10 egun balioduneko epearen barruan jakinaraziko dio Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari uste badu jarraibide horietako bat datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa izan daitekeela.

b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburua jakinaraztea, eta datu pertsonalak ez erabiltzea jakinarazitako helburua eta kontratuaren helburua ez den beste baterako. Betebehar hori funtsezkoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

c) Datu pertsonalak DBEOren 32. artikuluan xedatutako segurtasun-irizpideen eta edukiaren arabera tratatzea, eta erabiltzen dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo gomendagarriak diren segurtasun arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu eta betetzea. Aurrekoa, hain zuzen, bat dator Administrazio Elektronikoaren esparrurako Segurtasun-Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan ezarritako informazio-sistemen kategorizazioarekin eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin.

Kontratua formalizatu aurretik, pertsona kontratistak adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan jaso beharko du non egongo diren zerbitzariak kokatuta eta nondik emango dituzten haiei lotutako zerbitzuak. Kontratua indarrean dagoen bitartean, pertsona kontratista behartuta dago jakinaraztera adierazpenean jasotako informazioaren edozein aldaketa (adierazpen horretan jasotzen da zerbitzarien kokapena eta zerbitzuak nondik emango diren). Betebehar horiek funtsezkoak dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

d) Kontratua gauzatzeko erabiltzen dituzten datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta haien tratamenduaren ondorioz sortzen direnena ere, datuok lortu diren euskarria edozein dela ere.

Kontratistaren menpe tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiek izango dute aurreko betebehar hori, eta, era berean, kontratistaren ardura izango da organikoki edo/eta funtzionalki bere menpe dituzten pertsonak ohartaraztea sekretu-betebeharraz eta hura gordetzen jarraitu behar dutela zerbitzua bukatutakoan ere edo zerbitzuarekiko lotura galdu badute ere.

e) Agiri honen helburu diren datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen zerrenda izatea, eta ziurtatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, espresuki eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta behar diren segurtasun-neurriak

betetzeko (pertsona horiei behar jakinaraziko dizkie neurriok). Era berean, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jartzea egiaztatzeko dokumentazio hori.

f) Tratamendua egiteko baimendutako pertsonek datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza dutela bermatzea.

g) Hirugarren pertsonei ez komunikatzea (lagapenean uztea) eta zabaltzea datu pertsonalik, datuak kontserbatzeko bada ere; salbuespena da horretarako Biscaytik fundazioaren baimen espresua dagoenean.

h) Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea, hala badagokio, DBEOren arabera beharrezkoa denean, eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinaraztea, baita izendapena borondatezkoa denean ere.

Hala badagokio, kontratistak datu pertsonalak babesteko ordezkari izendatutako pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea.

i) Honako agiri honen xedea den kontratu-prestazioa amaitu ondoren, kasuan kasu eta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean agintzen denaren arabera, konpromisoa hartzen du datu hauek itzultzeko edo suntsitzeko:

- eskuratu dituen datu pertsonalak
- kontratistak tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak
- datu horiek biltzen dituzten euskarriak eta agiriak, inolako kopiarik gorde gabe

salbu eta legez edo Batasuneko zuzenbidearen arauz haien kontserbazioa baimentzen edo eskatzen bada, kasu horretan ez baitira suntsituko. Hala ere, kontratistak datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sor daitezkeen bitartean. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora gutxien kontserbatuko dira, eta epe hori amaitu bezain laster suntsituko dira modu seguruan eta behin betiko.

j) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea (PTA).

l) DBEOren 33. artikuluak ezartzen duenarekin bat, berehala komunikatzea Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari, gehienez ere 72 orduko epearen barruan, bere ardurapean dauden datu pertsonalen segurtasuna hautsi denean, hala gertatu dela jakitun bada. Era berean, horri edozein informazio jakinaraziko dio informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izan duen edo izan lezakeen —eta datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jartzen duen— edozein gorabehera edo hutsegite dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzizkoa dena, bai eta kontratua exekutatu bitartean lortutako datuak eta informazioak hirugarren batzuei ezagutzera eman beharraren ondorioz konfidentzialtasunean izandako edozein urraketa ere. Informazio xehea komunikatuko du lehenbailehen horri buruz, zehatz adierazita zer pertsonak jasan duten konfidentzialtasun-galerarik.

m) Pertsona fisiko batek kontratistarekin datuen babesaren arloko eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta aurka egitea, tratamendua mugatzea, eta banakako erabaki automatizatuak edo araudi aplikagarriak aitortutako beste batzuk ez hartzea), kontratistak jakinarazi behar dio hori ahalik eta lasterren Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari. Komunikazioa berehala egin behar da, eta inola ere ez eskubidearen egikaritza jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioarekin eta bestelako informazioekin batera, eskubidea egikaritzen duenaren identifikazio sinesgarria barne. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari lagunduko dio, ahal den guztietan, hark eskubide-egikaritzak bete eta erantzun ditzan.

n) Laguntza ematea Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari haren betebeharrak betetzen: segurtasun-neurrien arloko betebeharrak zein segurtasun-neurrien arrakalak (lortuak zein saiatu direnak) agintaritza eskudunei eta interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko betebeharrak; horrez gainera, eragin-ebaluazioak egiten laguntzea.

Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, hala behar denean.

Halaber, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarriko du, hark eskatuta, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta lagunduko du Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak, hala badagokio, auditoriak eta ikuskapenak egiten dituenean.

ñ) Idatziz edukitzea, baita formatu elektronikoan ere, eta DBEOren 30.2 artikuluarekin bat, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen (tratamenduaren arduradunaren) kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, zeinean jasoko baitira, gutxienez, artikulu horrek aipatzen dituen inguruabarrak. Horrela, bada, erregistro horrek informazio hau jasoko du:

- Kontratistaren izena eta harremanetarako datuak edo, hala behar denean, tratamenduaren ardura duten beste pertsona batzuenak eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearenak (udal erakundeen tratamenduen datu tratamendu-eragilea).

- Eginiko tratamenduen kategoriak.

- Segurtasun arloko neurri teknikoen eta antolaketa-arlokoen azalpen bat, halako neurririk hartu behar bada, alderdi hauekin lotutakoak:

    - Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.

    - Tratamendu-sistema eta -zerbitzuen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia etengabe bermatzeko gaitasuna.

- Arazo fisiko edo tekniko bat gertatzen denean datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea arin berreskuratzeko gaitasuna.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa arlokoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesua.

o) Datuen babesari buruzko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen direlako ebidentziak izatea. Adibidea: auditorien emaitzen betetze-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak, zeinak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarri beharko baititu berak eskatuta. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, unean-unean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarriko ditu.

p) Informazio-eskubidea: Datuak biltzen direnean kontratista denak informazioa eman beharko du egingo diren datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazketa eta formatua Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearekin adostu behar dira, datuak biltzen hasi aurretik.

Klausula honek eta bertan ezarritako betebeharrek eta "datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskinak" osatzen dute Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen eta kontratistaren arteko tratamendu-mandatuaren kontratua, zeina DBEOren 28.3 artikuluan aipatzen den. Hemen adierazitako betebeharrak eta prestazioak ez dira ordainduko baldintza-agirietan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitakoaz gain edo bestelako moduan, eta baldintza-agiri honen eta beraren kontratuaren xede den prestazioaren iraupen bera izango dute. Gainera, kontratua luzatuz gero, neurri berean luzatuko dira haiek ere. Dena den, kontratua amaitutakoan, sekretu-eginbeharrak indarrean iraungo du, denbora-mugarik gabe, kontratuaren exekuzioarekin zerikusia izan duten pertsona guztientzat.

Baldintza-agiri honen xedea betetzeko ez da beharrezkoa kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea, eta, beraz, ez dago baimenduta "datu pertsonalen tratamendua" eranskinean zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzea edo tratatzea. Kontratua exekutatu bitartean gorabeheraren bat gertatuz gero eta, horren ondorioz, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen ardurapeko datu pertsonaletara ustekabean edo gorabeheraren batengatik sartu behar bada ("datu pertsonalen tratamendua" eranskinean ez daude jasota), kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta arretarik handienarekin eta 72 orduko epean beranduenez.

Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpimandatuak:

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu nahi badu kontratuaren exekuzioa, eta azpikontratistak, kontratatua izanez gero, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, kontratistak hori aldez aurretik jakinaraziko dio Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza

kudeatzaileari, eta datu pertsonalen zer tratamendu dakarren adieraziko dio, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak erabaki dezan, hala badagokio, azpikontratu horri baimena eman ala ez.

Nolanahi ere, azpikontratazioa baimentzeko, ezinbesteko betekizuna da baldintza hauek betetzea; nahiz eta baldintza horiek bete, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari dagokion baimen hori emateko edo ez emateko erabakia hartzea:

• Azpikontratistak datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, baldintza-agiri honetan jasotakora eta Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen jarraibideetara egokitzea.

• Kontratistak eta azpikontratistak datuak tratatzeko mandatu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldintzetan. Kontratu hori Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailearen esku jarriko da, errekerimendua egiten zaionean, kontratu horren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Kontratistak Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileari jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk kontratatzen badira edo daudenak aldatzen badira, Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak aukera izan dezan baimena emateko. Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzaileak erantzuten ez badio kontratistaren eskaerari, horrek esan nahi du eskaeraren kontra dagoela.

Kontratistak hirugarren pertsonekin azpikontratatu nahi baditu zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak, nahitaezkoa da lizitatzaileek aldez aurretik adieraztea eskaintzan enpresaren izena edo profila, kaudimen profesionalaren edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztua, azpikontratistei dagokienez. Betebehar hori funtsezkoa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211.1 artikuluaren f letran xedatutakoaren ondorioetarako.

SPKLren 215.4 artikuluaren arabera, azpikontratistek kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, foru-erakunde kontratatzailearekiko erantzukizun osoa kontratua egikaritzeko. Datuen babesaren arloari dagokionez, baldintza-agirian eta kontratuan xedatutakoa zorrotz bete beharko da, bai eta SPKLren 202.1 artikuluan jasotako betebeharra ere (DBEO eta DBEDBLO datuen babeserako araudiaren menpe jartzea).

33 Jabetza intelektuala

Esleipendunak Biscaytik Fundazioari lagako dizkio kontratu honen baitan eratutako plan, sorkuntza eta dokumentu guztien egile-eskubideak eta jabetza intelektualeko eskubideak. Jabetza intelektualari dagozkion eskubideen lagapenak ez du denbora-mugarik izango eta esleipendunak kobratuko duen ordainsariaren barne dagoela ulertuko da. Ondore horietarako, Biscaytik Fundazioak esleipendunaren lana orokorki aldatzeko, eraldatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko, argitaratzeko, erakusteko, erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea izango du.

Esleipendunak ezin izango du ikerketa osoa edo zati bat erabili, ez zuzenean ezta zeharka ere, munduko edozein lekutan egin lezakeen beste enkargu batean.

Lizitatzaileak Biscaytik Fundazioari eman beharko dizkio fitxategi guztien iturriak, baita erabilitako baliabide teknologiko guztiak ere.

Getxo, 2023ko irailaren 06(a).

Izptua.:

Kontratazioko organoa

I. ERANSKINA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

[Aparteko dokumentu batean doa]

II. ERANSKINA

ABALAREN EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

[●] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izen soziala), IFZ [●] duenak, helbidea (jakinarazpenetarako) [●]-n, [●] kalean duenak (PK [●]), eta haren izenean [●]-k (ahalordedunaren/ahalordedunen izen-abizenak), ekintza honetako hura behartzeko aski ahalmen izanda, dokumentu honen atzealdean ageri den ordezkaritzaren egiaztapena egin ondoren ziurtatu denez,

ABALA eman dio [abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala]-ri, IFZ [●] duenari, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatzen denaren kariaz, behin-behineko berme gisa, [*kontratuaren izena adierazi*] kontratua esleitzeko iragarritako lehiaketan parte hartzeko bete beharreko betebeharrei erantzuteko, [*erakunde kontratatzailearen izena*]-ren aurrean (IFK [...], eta helbidea: [...]); zenbateko honen truke: [●] euro (letraz), [●] (zifraz).

Erakunde abal-emaileak adierazi du, bere erantzukizunpean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 56.2 artikuluan aurreikusten diren betekizunak betetzen dituela. Obligaziodun nagusiarekin solidarioki eman da abal hori, eskusio-onurari berariaz uko eginda, eta [*erakunde kontratatzailearen izena*]-ren lehen eskaeran ordaintzeko konpromisoa hartuta, aurrez adierazitako lege-testuetan aurreikusitako baldintzekin bat etorrita, betiere.

Abal hau indarrean egongo da [*erakunde kontratatzailearen izena*]-k edo haren izenean horretarako legez gaitutakoak abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak eta legedi osagarriak zehaztutakoarekin bat etorrita.

[●] (Lekua eta data)

[●] (Erakundearen izen soziala)

[●] (Ahalordedunaren/ahalordedunen sinadura)

KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

[●] ziurtagiri zenbakia; [● *aseguratzailearen izena*]-k (aurrerantzean, **"aseguratzailea"**), helbidea [●]-n, [●] kalean duenak, eta IFK [●] duenak, ekitaldi honetarako behar bezala [●] jaunak/andreak ordezkatuta, [● *adierazi ahalordeak eta erantsi askiespenerako kopia*] bidez.

[●] sozietateari (aurrerantzean, "**Sozietatea**") –IFK: [●] eta helbidea: [●] kalea [●]– ABALA EMATEN dio lehen errekerimenduan eta modu solidarioan, [*Erakunde kontratatzailearen izena*]-(r)en aurrean (aurrerantzean, "**Onuraduna**") –IFK: [●] eta helbidea: [●] kalea [●]–, gehienez ere [●] (letrekin idatzita) euroko [●] (zifrekin idatzita) (aurrerantzean, "**Bermatutako Zenbatekoa**") zenbatekoan, [*adierazi kontratuaren izena*] xede duen kontratutik –adierazitako Sozietateak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa izan da onena– eratorritako edozein obligazio behar bezala betetzeko; Bankuak adierazi du zirkunstantzia horren jakinaren gainean dagoela eta, bereziki, esleipendunek aurkeztutako bermeek eurekin dakarten erantzukizunen jakinaren gainean dagoela, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 110. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aseguratzaileak adierazi du, bere erantzukizunpean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 57.1 artikuluan eskatzen diren betekizunak betetzen dituela.

Hauek dira aseguru horren baldintzak:

(i) Prima (dela bakarra, lehenengoa edo hurrengoak) ordaintzen ez bada, aseguratzaileak ez du kontratua suntsitzeko eskubiderik izango, eta ez da berori iraungiko, aseguratzailearen estaldura ez da etengo, eta ez da bere betebeharretik askatuko, aseguratzaileak bermea erabili behar badu.

(ii) Aseguratzaileak aseguratuari kaltea ordaintzeko konpromisoa hartzen du, lehen eskaeran, eta aseguratzaileak ezin izango dizkio aseguratuari aurkaratu aseguru-hartzailearen kontra egokitu dakizkiokeen salbuespenak; halaber, ezin izango dizkio objekzioak jarri ordainketa-eskaerari, aseguru-hartzaileak plantea ditzakeen objekzioak direnak direla ere.

(iii) Aseguratuak eskatutako ordainketak egingo dizkio aseguratzaileak, xede horretarako idatziz [●] helbidera eskaera (edozein modu erabilita) egiten dion unetik hasita bost (5) egutegi-eguneko epean gehienez. Aseguratuak eskatutako ordainketak behin edo zenbait alditan egingo dira, hark adierazitakoaren arabera, osotara aseguratutako zenbatekoa gainditu gabe beti.

(iv) Aseguratuaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, une horretako edo etorkizuneko edonolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, dedukzio eta atxikimenduetatik aske eta horien ondoriozko edo konturako dedukzio gabe.

(v) Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da aseguratuak edo legez horretarako gaituta dagoenak berori indargabetu edo itzultzea baimentzen duen arte.

(vi) Espainiako Zuzenbideak arautzen du aseguru hau. Berme honen inguruan sor daitezkeen liskarrak, esklusiboki, Bilboko Auzitegien mende jarriko dira, eta haren jurisdikzioaren

pean egongo dira aldeak; beraz, uko egiten diote egokitu dakiekeen beste edozein jurisdikziori.

Lekua eta data [●]

Sinadura [●]

Aseguratzailea [●]

III. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[●] bankuak (aurrerantzean, **"bankua"**), eta, haren izenean eta ordezkaritza betez, [●]-k, egintza honetara behartzeko ahalmen nahikoa aitortuta ([●]-ko notario [●] jaunaren/andrearen [●] aurrean, [●] protokolo-zenbakiarekin, [●]. urteko [●]-ren [●]-eko dataz emandakoa), eta ahalmen horiek baliogabetu edo aldatu ez direla ziurtatuta.

ABALA EMAN DIO lehen eskarian solidarioki [●] sozietateari (aurrerantzean, **"sozietatea"**), IFK [●] duenari, eta helbidea [●]-n, [●] kalean duenari, [*erakunde kontratatzailearen izena*]-ren aurrean (aurrerantzean, **"onuraduna"**) (IFK [●] duena, eta helbidea [●]-n, [●] kalean), zenbateko honetaraino gehienez: [●] euro (letraz), [●] (zifraz) (aurrerantzean, **"bermatutako zenbatekoa"**), [*adierazi kontratuaren izena*] xede duen kontratua egokiro eman eta gauzatzeak eragin ditzakeen ordainketa-obligazioak betetzeko, eskaintza ekonomiko abantailatsuena sozietateak aurkeztutakoa izan denez kontratu horretarako aukeratu baita; horren jakitun dela adierazi du bankuak eta, bereziki, esleipendunek aurkeztutako bermeek eurekin dakarten erantzukizunen jakinaren gainean dagoela, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 110. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hauek dira abal horren baldintzak:

(i) Bankuak uko egiten dio berariaz ordena-, eskusio- eta zatiketa-onurei, bai eta edozein defentsa motaren planteamenduari ere.

(ii) Honako abal honek izaera abstraktua du, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango onuradunak bermea gauzatzeko arrazoiak ematea edo azaltzea; eta bankuak ezin izango dio objekziorik egin bermearen konturako inolako ordainketa-eskaerari, sozietateak plantea ditzakeen objekzioak direnak direlakoak izan arren.

(iii) Onuradunak eskatutako zenbatekoak ordaindu beharko ditu bankuak, xede horretarako idatziz [●] helbidera eskaera (edozein modu erabilita) egiten dion unetik hasita bost (5) egutegi-eguneko epean gehienez.

(iv) Onuradunak eskatutako ordainketak egingo ditu bankuak, behin edo gehiagotan, hark adierazitakoaren ildotik, osotara bermatutako zenbatekoa gainditzen ez badute, betiere.

(v) Onuradunaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, une horretako edo etorkizuneko edonolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, dedukzio eta atxikimenduetatik aske eta horien ondoriozko edo konturako dedukzio gabe.

(vi) Honako abal honen iraupena mugagabea da, onuradunak adierazpen idatzi bidez berori ezeztatzeko baimena eman artean.

(vii) Berme hau Espainiako zuzenbideak arautzen du. Berme honen inguruan sor daitezkeen liskarrak, esklusiboki, Bilboko Auzitegien mende jarriko dira, eta haren jurisdikzioaren pean egongo dira aldeak; beraz, uko egiten diote egokitu dakiekeen beste edozein jurisdikziori.

Berme hau Bermeen Erregistro Berezian inskribatu da, [●] zenbakiarekin, 20[●]-ko [●]-ean.

(Lekua eta data)

(Erakundearen izen soziala)

(Ahalordedunaren/ahalordedunen sinadura)

KAUZIO-ASEGURUAREN ZIURTAGIRIAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[●] ziurtagiri zenbakia; [● *aseguratzailearen izena*]-k (aurrerantzean, "**aseguratzailea**"), helbidea [●]-n, [●] kalean duenak, eta IFK [●] duenak, ekitaldi honetarako [●] jaunak/andreak behar bezala ordezkatuta, [● *adierazi ahalordeak eta erantsi askiespenerako kopia*] bidez,

ASEGURUA EGITEA [● *aseguratutako enpresaren izena*] enpresari –IFK: [●]–, aseguru hartzaile gisa (aurrerantzean, **"Aseguru-hartzailea"),** [*erakunde kontratatzailearen izena*] erakundearen aurrean (aurrerantzean, **"Aseguratua")** gehienez ere [●] (letrekin idatzita) euroko [●] (zifrekin idatzita) zenbatekoan, behin betiko bermearen kontzeptuan, behar bezala bete dezan [*adierazi kontratuaren izena*] xede duen kontratutik –adierazitako Sozietatea aukeratu da, eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu baitu– eratorritako edozein obligazio; Aseguratzaileak adierazi du zirkunstantzia horren jakinaren gainean dagoela eta, bereziki, esleipendunek aurkeztutako bermeek eurekin dakarten erantzukizunen jakinaren gainean dagoela, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 110. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aseguratzaileak adierazi du, bere erantzukizunpean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 57.1 artikuluan eskatzen diren betekizunak betetzen dituela.

Hauek dira aseguru horren baldintzak:

(i) Prima (dela bakarra, lehenengoa edo hurrengoak) ordaintzen ez bada, aseguratzaileak ez du kontratua suntsitzeko eskubiderik izango, eta ez da berori iraungiko, aseguratzailearen estaldura ez da etengo, eta ez da bere betebeharretik askatuko, aseguratzaileak bermea erabili behar badu.

(ii) Aseguratzaileak aseguratuari kaltea ordaintzeko konpromisoa hartzen du, lehen eskaeran, eta aseguratzaileak ezin izango dizkio aseguratuari aurkaratu aseguru-hartzailearen kontra egokitu dakizkiokeen salbuespenak; halaber, ezin izango dizkio objekzioak jarri ordainketa-eskaerari, aseguru-hartzaileak plantea ditzakeen objekzioak direnak direla ere.

(iii) Aseguratuak eskatutako ordainketak egingo dizkio aseguratzaileak, xede horretarako idatziz [●] helbidera eskaera (edozein modu erabilita) egiten dion unetik hasita bost (5) egutegi-eguneko epean gehienez. Aseguratuak eskatutako ordainketak behin edo zenbait alditan egingo dira, hark adierazitakoaren arabera, osotara aseguratutako zenbatekoa gainditu gabe beti.

(iv) Aseguratuaren jakinarazpenean adierazitako banku-kontuan egingo dira ordainketak, une horretako edo etorkizuneko edonolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontra-erreklamazio, dedukzio eta atxikimenduetatik aske eta horien ondoriozko edo konturako dedukzio gabe.

(v) Kauzio-aseguru hau indarrean egongo da aseguratuak edo legez horretarako gaituta dagoenak berori indargabetu edo itzultzea baimentzen duen arte.

(vi) Espainiako Zuzenbideak arautzen du aseguru hau. Berme honen inguruan sor daitezkeen liskarrak, esklusiboki, Bilboko Auzitegien mende jarriko dira, eta haren jurisdikzioaren

pean egongo dira aldeak; beraz, uko egiten diote egokitu dakiekeen beste edozein jurisdikziori.

Lekua eta data [●]

Sinadura [●]

Aseguratzailea [●]

IV. ERANSKINA

20. KLAUSULAKO GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEN DITUELA EGIAZTATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

[●] jaunak/andreak, xede honetarako helbidea [●]-n (PK [●]), [●] kalean, [●] zenbakian, [●] solairuan duenak (NAN zenbakia [●]), "[●]"-ren ordezkaritza betez, [*ahalordea*, *etab.*]-ren bidez (helbidea [●]-n du, [●] PK, [●] kalean, [●] zenbakian, [●] solairuan, [●] telefonoa eta [●] IFK).

HAUXE ADIERAZTEN DU

1.- Kontratatzeko gaitasuna.- [●]-k administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen ditu, bai eta kontratazio hau arautzen duten baldintza-agirietan ezarritako baldintzak ere.
Ez beheko aldean ageri den sinatzailea, ez hark ordezkatzen duen pertsona fisikoa/juridikoa, ez eta sozietatearen gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak ere (pertsona juridikoa den kasuan) ez daude Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratuko 60. artikuluan zerrendatutako kontratatzeko debekuen pean. Horrez gain, adierazten du egunean dagoela zerga-alorreko eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

2.- Jurisdikzioa.- Kontratutik zuzenean edo zeharka etor litezkeen gorabehera guztietan, Espainiako mota orotako epaitegi eta auzitegien mende dago (*atzerriko enpresen kasuan*); eta lizitatzaileari atzerrian egokitu dakiokeen foru-jurisdikzioari uko egiten dio.

3.- Araudia betetzea.- Eskaintza egiterakoan, kontuan hartu da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako aplikagarri den araudia, bai eta ingurumen-, gizarte- eta lan-esparruetan aplikagarri direnak ere, Europar Batasuneko Zuzenbideak xedatutakoaren arabera; eta estatuko zuzenbidea, hitzarmen kolektiboak, eta estatuarentzat lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-esparruetako nazioarteko zuzenbidearen xedapenak, kontratua gauzatzerakoan parte hartuko duten langileei aplikatu beharreko lan-eskubideak bermatzeko xedez.

Kontratistak bere gain hartzen du produkzio-kate osoan zehar oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko betebeharra, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko betebeharrak betetzekoa ere; bereziki, honako hauek:

- 29 eta 105. hitzarmenak, gatibu-lana kentzeari buruzkoak.
- 87 eta 98. hitzarmenak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. hitzarmena, balio bereko lan baten truke gizonezkoen eskulanak eta emakumezkoen eskulanak ordainsari berdina izateari buruzkoa.
- 111. hitzarmena, lanean hasteko uneko eta laneko baldintzetako bereizkeriari buruzkoa, arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo gizarte-jatorriaren araberako arrazoietan oinarritzen bada.
- 138. hitzarmena, esplotazioa eta haurren lana desagerrarazteari buruzkoa.
- 182. hitzarmena, haurren lan mota txarrenak galarazi eta horiek desagerrarazteko berehalako ekintzak egiteari buruzkoa.

4.- Ezintasuna duten pertsonak kontratatzeko legezko betebeharra.- Kontratua esleituz gero eta haren indarraldian, bere gain hartuko du enpresako langileen zerrendan ehuneko bi gutxienez ezintasunen bat duten pertsonak izateko betebeharra, 50 langile edo gehiago baditu,

ezgaitasunekiko pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratuak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutakoak, 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita; edota apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan ezarritako ordezko neurriak hartzekoa. Horrez gain, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean betebehar hori betetzen duela ziurtatzekoa, hark hala eskatuz gero, kontratua indarrean den edozein unetan, edota, dena den, azken faktura bidali aurretik.

5.- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra.- Esleipenduna izanez gero eta kontratuaren indarraldian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharra hartuko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoarekin bat etorrita, eta aitortzen du _____ langile dituela. Era berean, konpromisoa hartzen du Berdintasun Plana baduela ziurtatzeko, baldin eta horrelako plan bat edukitzeko legezko betebeharra badu (50 langile baino gehiago), edo betebehar konbentzionala badu; eta kontratuaren arduradunaren aurrean ziurtatuko du hori, hark hala eskatuz gero, kontratuaren indarraldiko edozein unetan, edota, dena den, azken faktura bidali aurretik.

6.- Berdinketa hausteko berariazko esleipen-irizpideak.- Esleipen-irizpideak aplikatu ondoren berdinketa gertatuz gero, berdinketa hori hausteko irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko moduan da. Baldintzen konkurrentzia ikusteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da:

☐ Ezintasuna.- Xede horretarako egindako ziurtagiri bidez edo dagokion dokumentazioaren bidez egiaztatuko da: a) enpresaren langileen zerrendan ehuneko bik baino gehiagok ezintasunen bat izatea; eta, b) enpresaren langileen zerrendan ezintasunak dituzten langile finkoen ehunekoa.

☐ Gizarteratze-enpresa.- Xede horretarako egindako ziurtagiri bidez edo dagokion dokumentazioaren bidez, abenduaren 13ko 44/2007 legean araututako gizarteratze-enpresa dela egiaztatuko da.

☐ Irabazi asmorik gabeko erakundeak.- Estatutuen bidez egiaztatuko da, edo sortu zeneko arauak, dagokion erregistro ofizialean izena emanda egon behar dutenak, aurkeztuz.

☐ Bidezko Merkataritza.- Bidezko Merkataritzako erakunde dela erakusten duen agiri bidez egiaztatuko da.

¨ Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako lankidetzan ari den erakundea.- Dagokion erakunde publikoak xede horretarako egindako ziurtagiri bidez egiaztatuko da.

7.- Kontratua gauzatzeko fasearen barneko azpikontratazioa.-

☐ Aurreikusita du kontratatutako zenbatekoaren % _____ azpikontratatzea (*ehunekoa idatziko da, gehienez ere bi dezimalekin. Ehuneko oso hori inoiz ere ez da izango baldintzen agirietan ezarritako muga baino handiagoa, edota, halakorik ezean, lizitazioa arautzen duen kontratu-araudian adierazitakoa baino handiagoa. Horrez gain, ehuneko horrek bat etorri behar du zatikatutako ehuneko guztien baturarekin); banakatze honen arabera egingo da hori*:

Azpikontratatuko den kontratuaren partidaren edo zatiaren izena	Sozietatearen izena edo azpikontratistaren enpresa-profila	Guztizko zenbatekoaren ehunekoa (ehunekotan, eta 2 dezimalekin gehienez)

☐ EZ du aurreikusten azpikontratatzea.

☐ Baldintza-agirian eskatzen den azpikontratatzeko betebeharra betetzeko, kontratuaren zati hori _____ izeneko enpresarekin azpikontratatuko du, gaitasun profesional edo sailkapen egokia baititu horretarako *(soilik baldintza-agirian kontratuaren zati bat azpikontratatu behar dela ezartzen denean).*

Azpikontratatzen badu, hark ordezkatzen duen enpresa behartuta dago azpikontratistei edo hornitzaileei hitzartutako prezioa ordaintzera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako aurreikusten diren epeetan beranduenera ere; eta azpikontratistak edo hornitzaileak igorritako faktura kontratista nagusiak onartzen duenean hasiko da zenbatzen epe hori; beraz, data eta dagokion aldia adierazi egingo dira.

8.- Merkataritza-kodeko 42.1 artikulua.- Ordezkatzen duen enpresa:

☐BAI, Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluko kasuetakoren batean dago.
☐EZ, ez dago Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluko kasuetakoren batean.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ du parte hartuko kontratuaren esleipenean taldeko beste enpresa batzuekin batera edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren batean biltzen direnekin batera, banakako proposamenak aurkezten badituzte.
☐ Kontratuaren esleipenean, BAI, taldeko beste enpresa batzuekin batera edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren batean biltzen direnekin batera arituko da, horiek banakako proposamenak aurkezten badituzte ere; ondorengo zerrenda honetan jaso dira:

IFZ	Sozietatearen izena

9.- Hitzarmen kolektiboa eta soldata.- Hauxe da, adjudikazioduna izanez gero, kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa:

Hitzarmenaren izena:	
Aldizkari ofizial honetan argitaratua:	
Argitaratze-data:	

Kontratua gauzatu bitartean sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzeko konpromisoa hartzen du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta, edonola ere, ezin izango du hori baino ordainsari txikiagoa ordaindu.

10.- Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan eta karatulan adierazitako egikaritze-baldintza bereziak betetzeko konpromisoa hartzen du, bai eta, kasuan kasu, Baldintza Tekniko Berezien Pleguan jasotakoak ere.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hala adierazi du.

[*Tokia*]-n, [*data*]-n

Sin.

V. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA, ETA FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN BESTE DATU BATZUK

[●] jaunak/andreak, xede honetarako helbidea [●]-n (PK [●]), [●] kalean, [●] zenbakian, [●] solairuan duenak, NAN zenbakia [●] duenak, [bere izenean eta eskubidez arituz/ "[●]"-ren ordezkaritza betez] (helbidea: [●] (PK [●]), [●] kalea, [●] zk., [●] solairua, [●] telefonoa eta IFK [●]).

HAUXE ADIERAZTEN DU

(i) Giza Baliabideak, Nominak eta Langilearen Ataria modulua administratzeko eta erabiltzaileei laguntzeko zerbitzua emateko xedea duen kontratua esleitzeko lizitazio-iragarkiaren berri izan dudala. ("**Kontratua**") eta ezagutzen ditut administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoen pleguak, bai eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak ere; horien edukia berariaz onartzen dut, baldintzarik gabe, osotasunean, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe.

(ii) Ordezkatzen duen enpresak betetzen ditu baldintza-agiri horiek eta indarreko araudiak kontratuaren xedea betetzeko eskatzen dituzten baldintza eta eskakizun guztiak.

(iii) Kontratua [*adierazi zenbatekoa zifraz eta letraz*] euro/ordukotan egitea proposatzen du, gehi [*adierazi zenbatekoa zifraz eta letraz*] euro, BEZ gisa, eta horrek kontzeptu guztiak hartzen ditu (asmo exhaustiborik gabe, zergak, gastuak, edonolako tasa eta arielak, enpresa kontratistaren etekina eta gastu orokorrak, etab.). (1)

(iv) Kontratua gauzatzeko garaian, kontratua gauzatuko duten langileei bizitza pertsonala, lana eta familia-bizitza uztatzeko neurriak eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzekoak aplikatzeko konpromisoa hatzen du, bai emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak ezartzen dituen gutxienekoak hobetzekoak ere; bereziki, adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza erraztuko duten baliabide propioak, pribatuak edo soziokomunitarioak, hala nola zerbitzu-txekeak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak, lanaldia hobetzeko baliabideak, eszedentziak, baimen edo lizentziak, ordutegia malgutzekoak, edota zerbitzuak egokitu edo berriro esleitzekoak; hauek, zehazki:

ERANTZUNKIDETASUN-NEURRIAK	APLIKATZEKO KONPROMISOA
Lanean sartu eta irteteko ordutegiak eta bazkaltzeko, kaferako eta abarretarako atsedenaldien ordutegiak malguak izatea.	BAI/EZ
Ordutegiak pertsonen eguneroko erritmoetara egokitzea: lan-ordutegiak garraioen,eskolen, saltokien eta abarren ordutegietara egokitzea.	BAI/EZ
Telelana: urrunetik lan egiteko aukera, etengabe lanpostuan egon beharrik gabe eta teknologia berriak erabilita.	BAI/EZ
Haur-eskolen gastuak eta mendeko pertsonen zainketarako beste zentro batzuenak ordaintzeko laguntza ekonomikoa.	BAI/EZ

Lanerako gunetik gertuko haur-eskoletan tokia gordetzeko aukera, edota haurtzaindegi propioak izateko aukera.	BAI/EZ
Erakundean lan-ordutegian edo lan-ordutegiaren zati batean barne-prestakuntza egiteko aukera.	BAI/EZ
Atsedenerako uneetatik gertu bilerak ez antolatzea.	BAI/EZ
Adingabeen edo mendeko pertsonen zaintza errazteko bitarteko propioak izateko aukera, hala nola zerbitzu-txekeak, jangelak, haurtzaindegiak, eguneko zentroak edo ludotekak.	BAI/EZ
Familia-ordutegia lan-ordutegira egokitzeko, zerbitzuak edo zereginak berriro esleitzeko aukera.	BAI/EZ
Lanaldia murrizteko, eszedentzietarako eta amatasun- edo aitatasun-baimen edo lizentzietarako hobekuntza-neurriak.	BAI/EZ

Lizitatzaileak memoria bat erantsi beharko du, non markatutako neurri guztiak deskribatu beharko dituen. Memoria hori SOILIK erantsiko da C gutun-azalean, edo kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioarekin.

Memoriarik eransten ez badu, ez da zuzengarria izango, eta horrek esan nahiko du ez dituela kontziliazio-neurriei dagozkion puntuak jasoko, V. eranskineko taulan markatu dituenak gorabehera. Era berean, markatutako neurriren baten deskribapena jasota ez badago, ez zaizkio neurri horri dagozkion puntuak esleituko.

(v) Zerbitzuaren adierazleekin lotuta, kontratuaren xedea honela gauzatzea proposatzen du:

IRIZPIDEAK	PROPOSAMENAREN BALIOA	ESKATUTAKO GUTXIENEKO BALIOA
Kontsulta eta laguntza Blokeatzaileen erantzuna, %-tan	(%-tan)	%95
Kontsulta eta laguntza Kritikoaren erantzuna, %-tan	(%-tan)	%95
Kontsulta eta laguntza Garrantzitsuen erantzuna, %-tan	(en %)	%95
Kontsulta eta laguntza Normalen erantzuna, %-tan	(en %)	%95
Aurkezteko hitzartutako denbora	(minututan)	120 minutu

		(Justifikazioa)	**E/D**
Zerbitzuaren ordutegia	Neguan		8:30-18:30
	Udan		8:00-14:00

(1) Gehienez, bi dezimal

VI. ERANSKINA

HORNITZAILEEN KODE ETIKOA ETA USTELKERIAREN PREBENTZIORAKO KODEA

"[Idatzi hornitzailearen izena], aurrerantzean "Hornitzaileak", ezagutzen du eta bere egiten du Biscaytik Fundazioaren konpromisorik irmoena, bere enpresa-jarduera indarrean dagoen legeriara (nazioko eta nazioarteko araudi aplikagarria) egokitzeko eta integritate-eskakizun handienen arabera garatzeko.

Hornitzaileak zero tolerantzia aitortzen du bere langile, zuzendari eta ordezkarien ustelkeriarekiko.

Horregatik, hornitzailea berariaz atxikitzen zaio Biscaytik Fundazioaren Hornitzaileen Kode Etikoari eta Ustelkeriaren Prebentziorako Kodeari, zeinaren kopia ematen baitzaio, eta Zigor Kodeak zehatutako eta/edo indarrean dagoen administrazio-araudiak debekatutako jokabide edo jarduera guztiak saihestuko ditu.

Alderdiek adostu dute Hornitzaileak klausula honetan hartutako konpromisoak betetzea funtsezko baldintza dela Biscaytik Fundazioak kontratu honen ondorioz duen interesa era egokian betetzeko.

Beraz, Hornitzaileak horiek ez betetzea funtsezko ez-betetzearen kausa izango da, eta, beraz, Biscaytik Fundazioari ahalmena emango lioke, bidezko arrazoiarekin, kontratu hau suntsiarazteko.

[*Tokia*]-n, [*data*]-n

Sin.

VII.ERANSKINA

GIZA TALDEAREN ESPERIENTZIA

Gutxieneko baldintza teknikoak	Proposatutako balioa	Eskatutako balioa
Proiektuburu bat (1), gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua duena proiektu honen eremuko proiektuen kudeaketan. Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten den bezala, profil hori ez da zenbatuko gutxienez 5 pertsonako taldean.	(urteetan)	5 urte
Lau (4) aholkulari, hiru (3) urtetik gorako esperientzia dutenak giza baliabideen eta nominen arloko aholkularitzan eta parametrizazioan.	(urteetan)	> 3 urte
Teknikari espezialista bat (1), espezifikazio teknikoen txostenean adierazitako soluzio teknologikoetan 3 urtetik gorako esperientzia duena.	(urteak)	>3 urte

Pertsona berak gaitasun teknikoa egiaztatu ahal izango du profil batean baino gehiagotan.

Eskakizun horiek ez betetzea baztertzeko arrazoia izango da langile taldearentzat. **Edozein profiletarako, informazio hau berariaz EZ gehitzea ez-betetze gisa interpretatuko da.**

Gutxieneko baldintza teknikoak bermatzeko konprometituta dagoen taldea osatzen duten kideak proiektuan izendatuta daudenak izango dira.